

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Proiektua eta artisautza

PELLO OTXANDIANO > 11

KRONIKA ARGENTINATIK:

Bertsoak, pilota eta cumbia
pixka bat

BEÑAT GAZTELUMENDI > 12

GAUR8

2017ko maiatzaren 6a | XI. urtea • 516. zbk.
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



APOAREN BIHOTZA, TAUPAKA

EL CORAZON DEL SAPO TALDE ARAGOITARRAREN BIHOTZA 2000. URTEAN PAUSATU ZEN. ORAIN, BIRA SOLIDARIO BAT TARTEKO, BERRIZ ARI DA TAUPAKA. DUELA EGUN BATZUK ZARAGOZAN, TORRERO KARTZELA IZANDAKOAN, JO ZUTEN, HAN URTETAN PILATU DEN ERREPRESIO GUZTIARI MENDEKUA HARTUAZ. FERNANDO APOAK -ABESLARIA ETA LETRAGILEA- KONTATU DIGU ZERK BIZKORTZEN DUEN APOAREN BIHOTZA. > 22 IKOR KOTX

**Filipinak: atxilotuak, horma-hobi
sekretu batean pilatuta** 04

**Aita santuak erlatibizatzen badaki,
Egipton eta Frantzian** 07

**Bizitzak ihes egin zuen hirira egin
nuen bidaia** 08

**Bertsoak, pilota eta cumbia pixka
bat Argentinan** 12

**Bilgune Feministaren Topaketak,
boteretzea helburu** 17

**E.lkarrizketa: Fernando Apoa,
abeslaria eta militantea** 22

**Hogei urtez Euskal Herriko hazien
ondarea zaintzen** 27

In fraganti: Terzi Kafea 28


Juantxo Egañaren behatxulotik 31



4



8



12



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** Amak
 10 **Ula Iruretagoiena:** Turismoaren lurralde kostuak
 11 **Pello Otxandiano:** Proiektua eta artisautza
 16 **Amaia Ballesteros**
 20 **Gorka Zozia:** Zaramalogia
 21 **Iker Barandiaran:** Belaunaldi batek apo tematiei
 26 **Xabier Mikel Errekondo:** Zara
 26 **Maider Iantzi Goienetxe:** Historiaren letra xehea irakurtzen
 30 **Ander Izagirre:** Alemaniarren azenarioak Biriaturun



17



28

{ datorrena } Iratxe Urizar

Amak

Bihar Amaren Eguna da. Igandea, jaieguna merezi duten edo ez eztabaida desatseginen sartzeko beharra ez izateko. Ez litza-teke ezohiko zerbait izango, izan ere, Aita-ren Eguna jaieguna izaten da askotan, San Jose eguna, horrek daraman ironia guztia-rekin. Maiatzeko lehenengo igandea. Egunak berak lo-reak, arrosa kolorea, *blingbling*, irabiagailuak, hauts xurgagailuak... ekartzen ditu berarekin, eta telebista jo eta su ibiltzen da makinaria kapitalista guztia abian.

Egia da ama izatea oso polita izan daitekeela, baina ezta urrunetik ere ez da ez arrosa ez *blingbling*. Gogorra da, zalantzarik gabe. Haurdunaldi edo adopzio prozedura luzeak izatea gerta daiteke, nekagarriak, mingarriak askotan. Ondoren, bizitza osorako amatasuna: pazientziaz, maitasunez, erantzukizunez bete. Polita bakarrik ez, oso polita askotan, baina gogorra ia beti.

Egun hauetan beste amatasun mota baten ospakizuna ere eman da. Madre de Plaza de Mayo elkarteak 40 urte bete zituen aurreko astean. Ezin hobeto gainera, 122. biloba aurkitu berri dute eta. Biloba; euren seme-alabak bilatzen zituzten horiek orain euren seme-alaben haurrak bilatzen dituztelako. Gaur egun, ume horiek nagusi egin dira, azkeneko gizonak bere familia propioa osatua zuen jada. Borrokan daramate 40 urte borrokan eta behar diren urte guztiak borrokatzen jarraitzeko prest daude, gainera. Euren senide desagertuekin zer gertatu zen argitzea exijituko dute nekatu gabe, erantzuleak markatuko dituzte behar den aldiro eta ez dute inondik inora onartuko «desagertu egin ziren» azalpena. Ez dira etxean bakarrik negarrez geldituko; antolatu egingo dira, borrokatu egingo dute eta behar denaren aurrean tinko eutsiko diote: berdin da pareko hori militarra, politikaria, epailea edo sistema politiko oso bat izatea. Berdin da

demokratikoa den estatu batean edo ez den batean izatea. Segi egingo dute.

Besarkada eta muxu handi bat Noritari, munduko beste punta horretan borrokan dirauten emakume horiei guztiei. Baita munduko beste toki askotan borrokan ari diren emakumeei ere. Baina, noski, baita hurbil ditugunei ere: Celes, Fina... euren seme-alabek pairatzen dituzten eskubide urraketak salatzen dituzten guztiak.

Batzuetan desagertuta daude eta beste batzuetan ez, baina kasik: sentsazio hori izan baitezake Murtziako espetxera (adibide bat jartzearen) bisitan doan inork.

KALKULU AKATS LARRIA

Baina gure seme-alabak desagerrarazteko antsia horrek kalkulu akats larria egiten du; ama horiek infernura ere jaitsiko baitira eta deabruari berari aurre egingo baitiote, une batez ere zalantza egin gabe, deabru horrek –uniformea eraman edo ez– euren umeak eraman nahi baldin baditu. Beste muxu erraldoi bat etxe giroan euren txikiak mindu nahi dituzten horien kontra borrokan ari direnei, amaigabeko prozesuetan sartuta. Mehatxuz jositako prozesuak, non inoiz ez den amaren kontra jotzen –ederki dakitelako amak ez direla kikiltzen kartzela mehatxuekin edo isunekin–. Aldiz, Damoklesen ezpata beti egoten da euren haurren aurka. «Ondo portatzen ez bazara, min egiten dion horrekin bidaliko dugu seme-alaba». «Ez zaitez antolatu, ez zaitez errebelatu, ez ezazu borrokatu. Ez zaitez mobilizatu, ez ezazu zaratarik atera». «Errenditu, behingoz! Emakumezkoa zara, bete ezazu dagokizun rola, erostari pasiboarena. Horrelakoak dira gauzak, onar ezazu».

Kalkulu akatsa. Gure haurrek euren ondoan izango gaituztela badakite. Kontrakoa pentsatzen duenak ez daki amatxo bat zertarako gai den. •

Egunotan beste amatasun mota baten ospakizuna ere eman da, Madre de Plaza de Mayo elkartearena. 40 urte daramatzate borrokan eta behar diren urte guztiak borrokatzen jarraitzeko prest daude, gainera

FILIPINAK

Polizia etxe bateko horma-hobi sekretu batean atxilotuak aurkitu dituzte

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Rodrigo Duterte Filipinetako presidentek abian jarritako «drogaren aurkako gerrak», 8.000 hildako eragiteaz gain, poliziek egindako delituei ateak zabaldu dizkie. Manilako poliza etxe batean hamabi lagun bahituta zeuzkaten ziega txiki batean eta «atxilotuei» erreskatea exijitzen zieten. Bisitari batzuek entzun zituzten bahitutakoen garrasiak.

Polizia etxeko altzari baten atzean ez-kutatuta zegoen espazio txiki batean hamabi lagun pilatuta aurkitu zituzten apirilaren 27an, Rodrigo Duterte Filipinetako presidentek abian jarritako «drogaren aurkako gerran» gehiegikeriak egiten direla dioen tesia indartzeko. Giza Eskubideen Gobernu Batzordeko kideek eta beraiekin zihoazen kazetariak egun hartako arratsaldean aurkitu zituzten gizon eta emakume horiek, aldez aurretik jakinarazi gabe Manilako auzo bateko polizia etxera egindako ustekabeko bisitan aurkitu zituzten.

«Hemen gaude, hemen gaude», entzun zuten bisitariak. Norbait garrasika ari zen, baina hormaren barrutik ari zela zirudien. Apalategi baten atzean ez-kutatuta ate bat ikusi zuten. Zabaldutakoan barruan zeudenak irten egin ziren. Batzuek ura eskatzen zuten bitartean, beste batzuek negar egiten zuten. Batzordekideei eskatu zieten leku hartan ez uzteko.

AGENTEEK ESKATUTAKO ERRESKATEA

Atxilotuek kontatutakoaren arabera, astebete zeramatzaten leku txiki hartan pilatuta, ustez legez kontrako drogen saltzaile edo kontsumitzaile izateagatik atxilotuak izan ondoren. Poliziei leporatu zieten erreskate moduan diru asko exijitzea, beraiek aske uzteko. «Drogaren aitzakiarekin espetxeratu dituzte, baina ez diete inolako kargurik egotzi», esplikatu zion France Presse agentziari Gilbert Bois-

ner Giza Eskubideen Gobernu Batzordeko Manilako zuzendaria.

Human Rights Watch gobernu kanpoko erakundeak nabarmendu du drogaren aurkako gerraren harira egiten diren abusuen beste kapitulu bat baino ez dela polizia etxean bizitzakoa. Aipatu gerrak dagoeneko milaka hildako eragin ditu Filipinetan. «Espetxe sekretu horren aurkikuntza, Duterteren drogaren aurkako neurritz kanpoko kanpaina poliziek beren poltsikoa loditzeko nola erabiltzen duten esaten digun azken seinalea baino ez da», esan du AEBetan egoitza duen HRWk.

Tankerako zerbait gertatu zen orain hilabete batzuk eta presidentek Poliziaren ustelkeriari aurre egingo ziola esan zuen. Urtarrilean gertatu zen, ikerketa


batek jakinarazi zuenean Estu-
pefazienteen Brigadako ofizia-
lek Hego Koreako enpresari bat
bahitu eta hil egin zutela, biktima-
ren familiak dirutza ordain
zezan. Dutertek esan zuen or-
duan «Polizia barne-muineta-
raino ustelduta» zegoela eta
«garbiketa» iragarri zuen. Baina
handik hilabete gutxira hitz ho-
riek haizeak eraman zituen eta
poliziek beren lanpostuetan ja-
rraitu zuten. Iragarritako erre-
forma handiaren arrastorik ere
ez da inon ikusi.

8.000 HILDAKO

Giza eskubideen aldeko ekin-
tzaileek zalantzan jarri zuten or-
duan Polizia «garbitzeko» presi-
dentearen borondatea, Dutertek
berak kalkulatu baitzuen agen-
teen %40k legez kontrako jar-
dueretan esku hartzen dutela.
Testuinguruak ere Dutertek
esandakoaz duda egitera anima-
tzen du, Poliziak esan baitu gu-
txienez 2.724 pertsona hil dituz-
tela «drogaren aurkako gerran»,
hori bai, «bidezko defentsan».
Gainera, HRWk emandako da-
tuen arabera, herrialdean sortu
diren miliziek ere milaka lagun,
ustezko gaizkile, hil dituzte.

Egun batzuk lehenago Filipi-
netako abokatu batek Nazioarte-
ko Zigor Auzitegiaren aurrean
esan zuen aipatu gerrak dagoe-
neko 8.000 hildako inguru era-
gin dituela, eta herrialdeko pre-

Ziega txiki batean
zituzten herritarrek ura
eskatu zuten bisitariak
entzutean. Astebete egin
zuten bertan pilatuta,
beheko irudietan ikusten
diren baldintzetan.
Vincent GO | AFP





Asiako hego-ekialdeko hamar agintariak ASEAN erakundeak egin berri duen bileran, kameren aurrean. Mark R. CRISTINO | AFP

sidenteari leporatu zizkion «erailketa» horiek.

Amnesty International gobernuz kanpoko erakundeak otsailan adierazi zuenez, Filipinetan gertatzen ari dena gizateriaren aurkako krimena izan daiteke.

Bere burua defenditzeko gaitasunik ez zuten pertsonak hil izana leporatu zion Amnesty Internationalen herrialdeko Poliziari, eta proba faltsuak prestatzea. Baita trafikatzailerak hiltzeko hiltzaile profesionalak kontrata-

tu izana eta biktimei zein senideei lapurtzea ere.

Robert Domingo komisarioa zen hamabi bahituak aurkitu zituzten polizia etxeko burua. Berak kazetariei adierazi zenez, apalategiaren atzean ezkutatuta

zeudenak ordu batzuk lehenago atxilotu zituzten (ez astebete lehenago, atxilotuek esan bezala), eta agenteak akusazioa prestatzen ari ziren ustekabeko bisita iritsi zenean. Baina ondoren egindako ikerketa baten eragi-

nez Domingo zigortu egin zuten, Oscar Albayalde Manilako poliziaburuak jakinarazi duenez. Agenteak onartu behar izan zuen azken bolada honetan legez kontrako atxilotetak orokortzen ari direla Filipinetan.

INPUNITATEA BULTZATU

Robert Domingo Manilako komisarioa gezurretan harrapatu eta zigortu badute ere, Filipinetako Polizia Nazionalako buruak ziega ezkutuetan atxilotuak edukitzea bidezkoa dela uste du. Horrela esan zuen Ronald Dela Rosak: «Presoei torturak edo kalteak eragiten ez zaizkien bitartean, nire ustez ondo dago». Giza Eskubideen Gobernu Batzordeko kideei Exekutiboak lotsarazteko azpilana egitea leporatu zien Dela Rosak.

Jose Gascon batzordeburuak erantzun zion Ronald Dela Rosari legez kontrako jarduerak bar-katzeko asmoz egindako adierazpenak ez direla egokiak, era horretan inpunitatea bultzatzen delako, eta injustiziak betikotu.



GIZA ESKUBIDEEN ALORREAN ATZERA EGITEN ARI DIRA ASIAKO HEGO-EKIALDEKO HERRIALDEAK, DUTERTEK ETA TRUMPEK ZABALDUTAKO BIDETIK

Ezagunena bada ere, Dutertek abian jarritako «drogaren aurkako gerra» ez da Asiako hego-ekialdeko herrialdeetan egiten den giza eskubideen bortxaketa bakarra. Ekintzaileek diote herrialde horiek, aurrera egin beharrean, atzera egin dutela azken urteotan. Baina gaia ia ez da aipatu ere egin ASEAN Asiako Hego-ekialdeko Nazioen Erkidegoak Filipinetan egin berri duen bileran.

Phil Robertson Human Rights Watch erakundeko zuzendariordeak esplikatu du giza eskubideen alorrean ez direla eredugarri agintari horiek, eta apirilaren bukaeran egin duten

gailurrean bestelako gaiei eman dietela lehentasuna. «ASEANeko herrialde guztietan giza eskubideak goitik beherako zurrumbilo batean sartuta daude –adierazi du Robertsonek–. Myanmar izan daiteke salbuespena, baina lehen zuten egoeratik, gobernu militar batekin, atzera egitea ezinezko delako». Bere iritziz, edozein irizpide

kontuan hartuta garbi ikusten da errepresioak, eskubideen bortxaketak eta diktadurek gora egin dutela; eta adierazpen eta manifestazio askatasunak, erlijioen arteko tolerantziak, printzipio demokratikoen errespetuak eta errefuxiatu zein migratzaileekiko tratamendu egokiak, behera.

Brunei herrialde txikia, esaterako, nekez ageri da Euskal Herriko hedabideetan. Sultan Hassanal Bolkiahk 70 urte ditu eta 49 daramatza aginte

absolutuarekin. Horri esker, munduko pertsonarik aberatsenetakoa da. Orain hiru urte Xaria lege islamikoa ezarri zuen: harrikatzeak eta anputazioak legezkoak dira bere erreinuan.

Indonesian Joko Widodo hauteskundeak irabazi zituenean bazirudien hamarkadako diktadura atzean uzteko bidean zeudela, baina hain herrialde konplexua eta handia aldatzea asko kostatzen ari zaio.

Hun Sen Kanbodiako agintaria karguan munda osoan denbora gehien daraman lehen ministroa da (30 urtetik gora). Ustelkeria da ezaugarri nagusia.

Agintari komunista izandako Thongloun Sisoulithk 71 urte ditu eta Laosek duen ustelkeria ezabatuko duela esaten du, baina ez dugu bertan gertatzen denaren berririk, nazioarteko hedabideak debekatuta daude-eta.

Najib Razakek zuzendutako Malaysian alderdi politiko berak 60 urte daramatza agintean. Malaysiar etnia lehenestea leporatzen diote.

Myanmarren militarrek azkenean agintea zibilen eskuetan utzi zuten, baina Aung San Suu Kyi Bakearen Nobel saridunaren irudia erabat kaltetu du Armadak rohingya etniaren aurka egindako abusuen salatu ez izanak.

Lee Hsien Loongek zuzentzen du Singapur, herrialde txiki eta aberatsa. Bere alderdiak bozketa guztiak irabazi ditu.

Prayut Chan-O-cha da Thaiandiako gobernu militarreko burua.

Demokrazia itzularaziko duela agindu du, baina ez ditu hauteskundeak deitzen.

Nguyen Xuan Phuc da Vietnamgo lehen ministroa.

Munduko hazkunde ekonomikorik handiena duen herrialdean Alderdi Komunista da legezko bakarra.

Donald Trump AEBetako presidenteak egiten duen moduan, Asiako hego-ekialdeko agintari batzuek hedabideak dituzte jomugan eta gero eta araudi zorrotzagoak ezartzen dituzte, informazio ezerosoak saihestu nahian. Kanbodiako agintariak, esaterako, Trumpen argudio berberak erabili zituzten zenbait hedabide iraintzeko. «Berri faltsuei» aurre egitea da agintari horien aitzakia. Eta jarrera aldatzen ez badute, kanpora!



Asiako hego-ekialdeko agintariak



OBSERVATORE ROMANO | AFP



IKUSMIRA

AITA SANTUAK ERLATIBIZATZEN BADAHI, EGIPTON ETA FRANTZIAN

Aste oparoa eskaini digu Frantzisko aita santuak. Jorge Mario Bergoglio Vatikanoko estatuburua Abdelfattah al-Sissi Egiptoko presidenteari bisita egin dion Mendebaldeko lehen agintaria da (Trump AEBetako presidentea ere berarekin bildu zen, baina Etxe Zurian). Vatikanok diplomazia izan du beti ardatz, baina milaka

herritar erail, atxilotu eta legez kanpo utzi dituen militar kolpista «bakearen aldeko» agintari gisa goraipatzeak gehiegizkoa dirudi, are gehiago argentinarra den eta hortaz asko dakien baten ahotan. Kristau koptoek zein Ekialde Hurbileko kristauak oro har pairatzen dituzten atentatuak eta jazarpenak ezin baititzakete bertako erregimenak zuritu. Ez ziren bere horretan amaitu Bergoglioren adierazpen bitxiak. Kairotik bueltan, hegazkinean Frantziako hauteskundeei buruz galdetu ziotenean, «eskuin gogorraren ordezkari baten [Le Pen] eta nondik ote datorren ez dakidan beste baten [Macron?] artean» ez duela hautatuko esan zuen. Dabid LAZKANOITURBURU

BIZITZAK IHES EGIN ZUEN HIRIRA EGIN NUEN BIDAIARI BURUZ

Karim Shaheen

Karim Shaheen «The Guardian» britainiar egunkariko Ekialde Hurbileko korrespontsala Turkian zegoen Siriako Idlib probintziako Khan Sheikhuneko eraso kimikoa gertatu zenean. Bertara joan zen handik bi egunetara eta orrialdeotan berak ikusi eta sentitutakoa laburbildu dugu. Nabarmentzekoa da Al Yusuf familiaren sufrimendua, hogeitakide galdu baitzituen apirilaren 4 tragiko hartan.

Khan Sheikhunek bizitzarik gabeko hiria dirudi. Apirilaren 4an gas pozoitsuekin bonbardatu zutenetik bertan mamuak baino ez direla bizi esan daiteke. Gas horien artean sarin izenekoa ere baze-goela esaten dute. Ia ehun lagun hil zituen eraso basatiak.

Siriako gerra hasi zenetik egin den eraso kimikorik izugarriena izan zen, 2013an Al-Ghoutako eremuak jasan behar izan zuena albo batera utziz gero. Sheikhungoak Siriarekiko estatubatuarren politikan aldaketa bat eragin zuen, Donald Trumpen Administrazioak aste batzuk lehenago Baxar al-Assad kargutik kendu beharrik ez zuela ikusten adierazi ondoren.

Ostegunean bisitatu nuen Khan Sheikhun, bonbardaketa egin zutenetik 48 ordutara. Turkiatik abiatuta, 140 kilometro egin nituen suntsitutako hirira iristeko.

Atzerriko berri agentzietako kazetaririk ez da egon azken urteotan oposizioiko indarrek mendeantzen Idlib probintziako herrietan. Kazetaria bera bahitzeko arriskua oso handia zenez, Al-Assaden erregimenak egiten dituen bonbardaketak arrisksuegiak direlako eta Al-Qaeda sarea (gaur egun Hay'at Tahrir al-Sham izena erabiltzen du) hedatzen ari zelako kazetariak erabaki hori hartu izan dute.

INFERNUA BERDETSUNA NAGUSI DEN EREMUAN

Idlibeko herri eta hirietan bizitzak aurrera jarraitzen du, baina kontu handiz, gerra eta bonbardaketak ez dira amaitzen-eta. Probintziako nekazaritza eremuak planeta osoko lekuri politenetakoak dira udaberrian: berdetasuna da nagusi eta olibondoak, gereziondoak, arbendolondoak eta intxaurreondoak loratzen ari dira.

Ez nintzen sartu ez Arihara ez Idlibera, baina eskualdeko beste hirietan bizitza arrastoak ikusi ahal izan nituen, arrasto lotsatiak, hori bai, aire erasoek eragiten

duten beldurra ez baita bukatzen. Edonola ere, Idlibeko gerra zantzuak ezin dira naturaren edertasunarekin alderatu: hauek gehiago dira eta ozen adierazten dute natura presente dagoela. Probintziara gerra hegazkinak sartu direla adierazteko zaintza dorreek jotzen duten alarma ez zen isildu goiz osoan. Erasoa amaitzean zerura doan kea ikusten da, batez ere herri txikietara begiratuz gero: leku horietako herritarrek bizi duten infernuaz pentsatzera animatzen zaitu.

Khan Sheikhunera iristean bizitzaren arrastorik txikienak ere desagertu egiten dira. Ia erabat hutsik dago hiria, familia askok ihes egitea erabaki zuen-eta. Bertatik ihes egin dutenetako asko bere garaian Hama probintziako borroketatik alde egindakoak ziren. Horietako batzuek hirira itzultzea erabaki zuten, eraso kimikoaren biktimak ehorzteko.

Hasiera batean bonbardaketa kimikoa egin zuten puntura joan nintzen, baina arreta handiz, bertan denbora gehiegi egin gabe, aire erasoak egiten dituztenen zaintza etengabea baita. Errusiako Defentsa Ministerioak esandakoa egiaztatu nahi nuen, alegia, siriar erregimenak arma kimikoak zituen biltegi bat bonbar-

datu zuela, eta horrek eragin zuela tragedia. Oraindik garbi ikusten zen jaurtigaia erori zen puntua: zulo beltza kalearen erdian, eta metraila zati berdeak. Alde batean, etxebizitzak; bestean, biltegi bat eta zerealak ekoizteko erabiltzen zituzten siloak. Biltegia zutik zegoenez, bertan sartu nintzen. Hondakinak besterik ez eta boleibolen aritzeko erabiltzen den sare horietako bat, aspaldi honetan erabili gabea. Siloetan lasto pixka bat, simaurra eta ukuilu usaina baino ez.

SALBAMENDU TALDEA LAGUNTZA ESKE

Kasko zuria jantzita ibiltzen diren Defentsa Zibileko boluntario batek bonbardaketa kimikoaren egunean gertatutakoa deskribatu zidan: 06.30etik 07.00etara gerra hegazkinek lau eraso egin zituzten. Hasiera batean salbamendu taldeek eta herritarrek pentsatu zuten ohiko eraso bat zela. Lehen kasko zuriak iritsi zirenean, egoitza nagusian zeudenak harrituta geratu ziren, laguntza eskariak egiten baitzituzten besteak salbatzera joandakoek. Konortea galtzen ari zirela jakinaz, zieten egoitzakoei. Orduan ulertu zuten gas pozoitsuak jaurti zituztela hegazkinek.

Khan Sheikhunen bizi ziren ume asko babeslekuetara sartu zituzten aire erasoak hastean, baina bertara ere iritsi zen gas pozoitsua. GAURB



Tragedia gertatu zen lekutik gertu bizi da topatu nuen gizon bat. Abu al-Baraa zela esan zidan. Eraso izan eta gero kalera irten zela kontatu zidan, eta irudi beldurgarriak ikustea tokatu zitzaiola. Erasoaren biktimak lurrean zeuden, hilda edo zaurituta. Batzuek ezpainak urdinduta zituzten. Arnas hartzea asko kostatzen zitzaien eta batzuk ahotik aparra zeriola zeuden, herritarrak eskainitako lekukotasunaren arabera.

Apokalipsiaren tankerako zerbait deskribatu zuten bertaratu ziren salbamendu taldeek: ohean itota hildako umeak, eta familia osoak konortea galdu eta etxeko eskailleratan, teiltatu lauan edo so-toetan erorita.

Bizirik atera zituzten herritarrak hiriko erietxera eraman eta bertan zaindu zituzten. Baina ospitalea berehala bete zen eta geroztik iritsi zitzaizkien ehunka lagunak non sartu ez zekitela geratu ziren. Gehienak itotzen ari ziren. Khan Sheikhuneko kabitzen ez zirenak, Idlib probintziako eta Turkiako erietxeetara eraman behar izan zituzten.

Handik ordu batzuetara, Khan Sheikhuneko erietxe nagusia eta Defentsa Zibilak inguruan dituen instalazioak bonbardatu zituzten. Harrizko mendi baten barruan eraiki bazituzten ere, zerbitzu horiek erabili ezinik geratu ziren.

ATROPINA INJEKZIOAK ALFERRIK GALDUTA

Erietxea eta Defentsa Zibila zeuden lekura iritsi nintzenean, sarreran hondakinak besterik ez zeuden. Sartu egin nintzen. Oso toki iluna zen une hartan, argindarrak ez baitzegoen eta suntsiketa erabatekoa baitzen. Ez nuen armarik ikusi ospitalean, medikuek erabilitako tresneria txiki-txiki eginda besterik ez, eta lurrean ikusi nituen alferrik galdutako botikak, erabiltzerik ez dagoen ebakuntza-gela eta sarin gasaren ondorioei aurre egiteko erabiltzen diren atropina injekzioak. Medikuek ezin izan zituzten injekzio horiek erabili, bonbardaketaren erdian lekua ebakatu beharra izan zuten-eta.

Erietxe izan zen tokitik Al-Yusuf familiaren etxera joan nintzen, hogei senide galdu zituztenen etxera. Abd al-Hamid al-Yusuf ikusi nuen, erabat lur jota gertzeko puntuan. Bera ageri den irudiak sekulako hedapena izan zuen sare sozialetan: Ahmad eta Aya seme-alaba bikien gorpuei besarkatuta ageri zen. Eraso kimikoaren eraginez itota hil ziren bi txikiak. Bederatzi hilabete baino ez zuten. Egun madarikatu hartan hil zituzten Abd al-Hamid al-Yusufen emaztea, anaia, beste senide batzuk eta anai-arreben se-



Erasoaren ondoren biktimei laguntza eskaintzera joan ziren salbamendu taldeak larri ibili ziren, ohiko eraso bat zelakoan bertaratu baitziren. Gai toxikoak jaurti zituztenek ez zekiten.

GAUR8

Abd al-Hamid al-Yusuf ageri den irudiak sekulako hedapena izan zuen sare sozialetan: Ahmad eta Aya seme-alaba bikien gorpuei besarkatuta ageri zen. Eraso kimikoaren eraginez itota hil ziren bi txikiak, beste hemezortzi senide bezala

Lehen kasko zuriak iritsi zirenean, egoitza nagusian zeudenak harrituta geratu ziren, laguntza eskariak egiten baitzituzten besteak salbatzera joandakoek. Konortea galtzen ari zirela jakinarazi zieten egoitzakoei

me-alabak. Hogeia lagun. Abd al-Hamid eta Jaled anaia biktimei laguntza ematen saiatu ziren lehen ordu haietan, emaztea eta seme-alabak babesleku batean sartu ondoren. Baina gas pozoitsua sotoetara sartu zen eta familia itota hil zen, segurutzat jotako puntuan.

Abd al-Hamidek nerbio-krisi bat jasan zuen gertatutakoaren berri izan zuenean. Nirekin hitz egin zuenean shock egoeran jarraitzen zuen; txandal iluna jantzita, oso argalduta zegoen, bizpahiru eguneko bizarrarekin. Begirada galdu

egiten zuen tarteka eta bere onera itzultzean, seme-alaben izenak erreplikatzeko zituen. Etxekoek esaten zioten denbora beharko zuela gertatutakoa barneratzeko, malko artean.

Jaled anaiak gaixo segitzen du eta hildakoak gogoratzean negarrez hasten da. Alaa Yusuf lehengusuak (goian aipatutako irudia hartu zuena) gogoan du Abd al-Hamidek txikiak besarkatuta eduki zituela hilobira iritsi arte. «Artatxori hauekin nagoela egidazu argazkia», esan zion argazkilariari.



Ula Iruretagoiena
Arkitektoa

Turismoaren lurralde kostuak

Turismoa lurraldearen aberastasunean -lurraldearen baliabide naturalak eta lurraldetasunaren kultura atrakzio bilakatzen ditu- oinarritzen den jarduera ekonomikoa da. Eta promesa egiten du bertako biztanleen irabazpideak handituko dituela.

Argudio horietan murgiltzen dira turismoa bultzatzen duten organismoak. “Euskadi-Basque Country” 2020 EAEko Turismoko Plan Estrategikoari begira jarri eta “lurralde marka”, “produktu”, “garapen ekonomiko”, “hazkuntza”, “lehiakortasuna”, “eraginkorra”, “internazionalizazioa” hitzak errepikaturik aurkitzen dira nonahi. Horrek esan nahi du, turismoak marketin logikak aplikatzen dituela lurraldearen gain. Deigarria dena zera da: turismoa lurraldeak dituen balioen ustiapenean oinarrituriko aktibitatea izanik, nola da posible mapa bakar bat bera ere ez agertzea Turismoko Plan Estrategikoan? Datuak “ez-lekutuak” baleude bezala ageri dira txostenean zehar. Marketin hitzak berriz, maileguan hartu dira lurraldearen antolaketa egiteko garaian –eta jakina da lengoaiak jakin baten aldeko hautuak duen garrantzia–.

Turista kopurua handitzea poztekoa dela. Hori esaten digute komunikabideek ezbairik gabeko konbentzimenduarekin, oporraldien ondoren jaurtitzen dizkiguten datu triunfalista sortaren bitartez –Plan Estrategikoaren uzta onaren propaganda zabalduz, bide batez–. Aitor dut turismo alorrean ezjakina naizela, baina, hiritar eta hirigile bezala, turismoak une oro interpelatzen nau. Irabazpideak noren eskuetara doaz eta zein ekonomia eredu sustatzen du turismoak? Dena da zilegi turistak erakartzeko? Lurraldearen gain zein gaitz dakar hedonista kanpotarren bisitaldiak? Merkatuaren ekuazioan garaileak bagara, nor da gaitzaile?

Udal plangintza egiterako garaian, turismoaren planteamenduak eragin handia du, turistikoki interesa duten udalerrietan “turista egoiliarrentzat” etxebizitza eskari bat ematera beharturik baikaude. Horrek ekarri du udako eta neguko denboraldiak lurraldean estrukturalki sortu eta indartu izana. Udalon kudeaketan dihardutenak ongi dakite zer-nolako kostua den udan biztanleria bikoiztera iristen den egoerari aurre egitea. Lurraldeak pairatzen du azpiegituren eta zerbitzuen eraikuntza, oporraldietan datozenen beharrak asetzeko zain. Udalerrri baten etxebizitza -haz-

kuntzaren kalkulurako “bigarren etxebizitza” formula matematikoaren aldagaia izateak agerian uzten du turismoaren eta higiezin produktuen artean dagoen lotura. Gure hirietan ere turismoaren erasoak higiezin alorrean ari dira gertatzen, “epe laburreko turistari” erantzuna emateko. Alokairuzko etxebizitzaren eskaintza turismoari zuzendua izatea, hirietako zentroetako etxebizitzak erosi eta turistei eskaintzea edota hotel berriak eraikitzea, negozio bikainak dira Plan Estrategikoaren babesean. Turismoaren gentrifikazio hori etxebizitza hutsen pareko fenomeno da, etxebizitza parkean beharrian faltsuak sortuz.

Turismoa ez da mamu gaizto bat. Ongi aplikatuz gero, lurraldea ezagutu, baloratu eta modu orekatuan ustiatzeko tresna boteretsua izan baitaiteke. Baina lurraldearen mugak –eta kostuak– formula matematikoan aintzat hartzen ez badira, turismoaren onurak galdu egiten dira. Nago Euskal Herriko turismo fenomenoaren ibilbidea eta egoera hausnartzeko garaia heldu dela, turismo ereduaren problematizatuz. Lehenik, lurraldetasunaren eraikitzean denok partaide garenez geroztik, gogoeta gizarteratzea dagokigu. Bigarrenik, turismoko estrategiak lurraldearen antolamenduarekin batera pentsatu eta koordinatu beharrean dira, turismoaren eta lurraldearen artean bateragarritasunak aurkitzeko. Azkenik, turismoak higiezinaren sektorearekin egin duen ezkontzari mugak ezarri beharko zaizkio, turismoak bultzatzen duen bertakoen eta lekukoen banderari eusteko behinik behin. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Proiektua eta artisautza

Aste honi zeharka begiratzen hasita ezin PNVk PPrekin egin duen hitzarmenari izkin egin. Lehen begiratuan, garai likidoei neurria zehaztasunez hartu dion PNV indartuta atera da zalantzarik gabe, bere posizio abantailatsuari errentagarritasuna atera baitio beste behin, zenbakietara eraman daitekeen salmenta errazeko emaitza. PPren gobernu ustela sostengatzearen truke, bai, eta? Euro mordoxka bat etxera bueltan, gero gerokoak.

Ernegatu gaitezke PNVren saldukeriarekin ikusita eskuin espainolista ustelena nola sostengatu duen Katalunia erreferenduma deitzera doan garaian. Ekin diezaiokegu, beroaldian, akordio honen ondorio politiko epe motzekoak aztertzeari, besteak beste Erkidego Autonomoko estatus politikoaren eztabaida parlamentarioa zein lekutan uzten duen. Ondo, baina osasun mentala zaintzea ere komeni denez, gaurkoan nahiago dut harago begiratu eta frustrazioaren tentazioa ekidin. Izan ere, badaude gauza batzuk gure esku ez daudenak. PNVk ere jokutzen du partida hau. Eta haxe da, zalantzarik gabe, PNVren bertsio onena. Nahiz bihotzean min egin sorpresarik ez digu eman.

Gaurko PNV honek badu gauza on bat, aitortu behar zaiona: ez du zer den ezkutatzen, argi hitz egiten du. Ez da inongo abenturatan sartuko, ez du ezer arriskatuko burujabetzaren alde, eta *statu quo*-a kudeatzera mugatuko da bere posizio pribilegiatuak gordetzen saiatuz. Are, burujabetzaren egitasmoak bidea egin ez dezan tapoi lanak egingo ditu, egoera hau bikaina baita beretzat hegemoniaren jabe denez gero. Eskola umeek ere badakite hori dagoeneko.

Nola artikulatu euskal subiranismoaren indarrak gaur eta hemen? Horixe da ariketa. Eta PNVren jardunbideak pista bat ematen digu bere gordinen. PNVk ondo neurtu ditu gaurko euskal herritarren kezka eta pertzepzioak. Jendea ziurgabetasunak larrituta bizi da, ziurtasunak behar ditu. Aldaketak nahi ditu, bai, baina daukana galtzeko arrisku gehiegirik hartu gabe. Eta Espainian dagoen nahas-mahasaren ondoan PNVk egonkortasuna, seriotasuna eta pragmatismoa sena proiektatzen ditu. Euskal autogobernu sistemak –azken urteetan atzerapauso nabarmenak eman dituen arren botere efektibo oso mugatuarekin gelditzeraino– eta bere kudeatzaileek Espainiak baino ziurtasun gehiago eskaintzen dituzten

bitartean –eta ez da batere zaila ikusitakoak ikusita– euskal subiranismoak jai du; Katalunian ez bezala, hemen, oro har, Espainian baino hobeto bizi garela haute-maten baitu jendarteak.

Jai dugu baldin eta ez badugu are ziurtasun gehiago emango dituen proiektu bat kontrajartzen. Proiektu erreal bat, ukigarria. Gizartean dauden kezka iturri nagusiei erantzun materialak eskainiko dizkiena. Posible da, inoiz baino posibleago segur aski, baina egitasmo subiranistak lur hartu behar du horretarako. Diskurtsoetatik proiektu politiko definitu baterako saltoa egin behar du: Zer-nolako lan harreman esparrua? Zer hezkuntza sistema? Nolako pentsio sistema? Antzerako galderei erantzun zehatzik eman gabe nekez egingo dugu aurrera.

Uste dut aurrerapauso sendoak emateko argipen ideologiko nahikoa badagoela jada. Eztabaida eskolastikotatik trabatzeko joera antzematen den arren –Maltzaga gorabehera– uste dut, batez ere, ingeniariak lana dela faltan duguna: sinergiak josi, dauden energien arteko el-

Gaurko PNV honek badu gauza on bat: ez du zer den ezkutatzen. Ez da inongo abenturatan sartuko, ez du ezer arriskatuko burujabetzaren alde, eta «statu quo»-a kudeatzera mugatuko da

kar elikatzeak sustatu, erreferentzia sozial berriak sortu, eta abar. Ingeniariak edo, nahi bada, artisau onak behar ditu burujabetzaren egitasmoak. Gizarte ekimenaren, ekimen sindikalaren eta instituzionalaren arteko elkar elikatze prozesuek herri hau martxan jartzeko energia nahikoa baitute.

Zentzu horretan, armagabetzearen ekimena bide erakuslea da. Azkarregi amortizatzen ditugu herri honetan garaipenak. Alabaina, Baionak mugarri beharko luke. Berrikuntza taktikoan asmatuz, jendartearen aktibazioaren eta lan diskretuaren arteko oreka ondo gordez eta instituzioen eta gizarte zibilaren arteko elkarlana josiz estatu boteretsu bati gain hartzea lortu du herri ekimenak. Hitzetatik ekintzetara pasatzen garenean arerioak –kanpokoak eta bertokoak– posizioz aldarazteko gaitasuna badugula erakusten du armagabetzeak. •

ARGENTINA: BERTSOAK, PILOTA ETA CUMBIA PIXKA BAT

Beñat Gaztelumendi

Apirilaren 9tik 22ra bitartean lau pilotari, bi bertsolari eta aurkezle bat Argentinan zehar ibili gara Bertso Pilota saioak eginez. Euskal Herria erakutsi eta Argentina ezagutzera etorri ginen. Eta, konturatzerako, ezagutzen ez genuen Euskal Herri baten berri eman digute beste kontinente bateko euskalki batean mintzo diren euskaldunek.

Bakearen Artisauak gizarte zibilaren konpromisoak zer esan nahi duen erakusten ari ziren Baionan. Korrika Iruñera iristerra zihoan. Eta hegazkin bat Madrilgo Barajaseko aireportutik abiatu zen, Sao Paulon eskala egin eta Buenos Aires helmuga zuela. Zazpi euskaldun gindoazen barruan: lau pilotari, bi bertsolari eta aurkezle bat. Bertso Pilota saioak eskaini nahi genizkien paleta eta payadoreak ezagutzen zituzten argentinarek. Artean ez genekien zerekin egingo genuen topo.

Heldu orduko azalera itsatsi zitzaigun Buenos Aires. Bero errea euriak gorputzera sartu zigun hiriari zerion asfalto eta gasolina lurrinez hornituta. Begirada triste eta kontsonante alaiz mintzo zen taxilariak, munduko hiri gehienetako taxilariak duten analisi sozioekonomikorako erraztasunarekin, Argentinak arazo handi bat daukala kontatu zigun: ez dagoela nazionalismorik. “Nazionalismo” hitzak Euskal Herritik kanpo izan dezakeen esanahiaz hausnarrean ari ginela hitz egin zigun peronismoaz, hitz egin zigun Macriz, hitz egin zigun inflazioaz, hitz egin zigun martxotik borrokan ari diren irakasleez, bizitza ehuneko hogeita hamar garestitu arren soldatak eguneratzen ez dituen Gobernuaz, apiril hasierako greba orokorraz... Eta baita herriarren arteko elkartasunik ezaz ere; arazo orokorren aurrean nork bere interesei begiratzeko joeraz. Eta aireportutik San Telmo auzora bitarteko etorbide zabalean kalean bizi zen jendea ikusi genuen, eguerdiko berotan arkupeetan eraikitako kartoizko etxeetan etzanda, eskerako ere esperantzarik gabe.

Ordu laurdeneko bidaian ikasi genuen hitzak ere kontinentez aldatzen direla: Argentinan “villa” hitzak ez duela luxurik adierazten; Buenos Aireseko trenbide ertzeko favelei deitzen zaie hala. Garai batean lan bila iritsitako langile boliviarrak, paraguayitar eta perutarrek bizi omen dira bertan. Gu begiak zabaldua eta ahoa itxita iritsi ginen San Telmo auzora, Buenos Aires azalera itsatsita.

RIO DE LA PLATAREN ERTZEKO EUSKALTZALEAK

Argentinan euskaldun izatea zer ote den. Hegazkineko hamalau orduetan galdera hori generabilen turbulenziek ikaratutako sabeletan bueltaka. Saiatu ginen erantzunen bat ematen, baina leihoetatik lainoa baino ez genuen ikusten. Buenos Airesera iritsi berritan hasi



Klase publikoak, Buenos Aireseko Maiatzeko Plazan.
GAUR8

ziren gure aurreiritziak hausten. Euskaltzaleak Euskal Etxeko lagunekin genuen lehenengo hitzordua, elkarte bilakatutako garaje batean. Bertso saio bat egitekoak ginen bertan eta han ari ginen, kantatutakoa nola itzuli zalantzan. Baina ez zen itzulpen beharrik izan: urteetako lanaren ondoren inguratu ziren hogeitak lagunak gai ziren esaten ari ginena ulertzeko.

Saioa bukatutakoan Euskal Etxea erakustera eraman gintuzten: ia laguntzarik eta baliabiderik gabe eraikitako lokal bat zen. Ikurrina eta euskal presoak etxeratze bantaren aldamenean “Ni una menos” kanpainako kartelak ere jarritak zeuzkaten, euskara hutsean. Urteak dira Argentinan mugimendu feministak emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontra altxatu zela. Hasierako manifestazioetara dozenak lagun inguratzetik dozenak mila lagun egindako protestetara iritsi dira urte gutxiren eta lan askoren ondoren. Irenek, Euskal Etxeko euskara irakasleak, harro erakutsi zigun aurtengo martxarako euskara hutsez prestatu zuten pankarta. Hori izan zen apurtu zitzaiz

gun bigarren aurreiritzia: euskara ez zen iraganera, arbasoetara lotzen zituen haria, Buenos Aireseko egunerokotasunari, bertako euskaldunen emozio eta pentsaerari forma emateko tresna baizik. Euskal Herrian oraindik leku askotan lortu ez den arren, Buenos Airesen dozenak lagunak euskaraz bizitzeko hautua egin zuten.

Hunkituta eta harriduraz egin genien beharbada egin behar ez genuen galdera: ea arbaso euskaldunak ba ote zuten. Eta batek baino gehiagok erantzun zigun ezetz: Euskal Herriarekiko lilura eta jakin-minak eraman zituela euskarara; munduari begiratzeko beste leku baten bila ari zirela, hizkuntza eta pentsamendu hegemonikoetatik kanpo.

Euskal Etxetik atera ginenean euria ari zuen oraindik, geratu gabe.

CUMBIA ETA DISTANTZIA LA PLATAN

Oraindik *jet lag*-aren eraginpean iritsi ginen Buenos Airesetik La Platara; Euskal Herritik milaka kilometro eta bost orduetara. Euskal Herrian bazkalordua da Argentina esnatzen denean; afalorduan bazkaltzen da, eta Kantauri ertzean egu-



na urratzen ari dela iristen da lotarako garaia Rio de la Plataren aldamenean.

Ordubeteko autobus bidaian ohartu ginen, ordea, ordularia bakarrik ez, denbora ere aldatu egiten dela kontinente batetik bestera. Bihurgunerik eta mendirik gabeko errepide lau batetik iritsi ginen La Platara eta han ikasi genuen distantziaren zentzua ere aldatu egiten dela: haientzat *cerquita* dena urrun da goela guretzat, 500 kilometrotara adibidez; eta haientzat *lejos* dena ez dela Es-kiulatik Karrantzara eta Donostiatik Tuterara zedarritutako gure garuneko mapetan sartzen. Jendetza inguratu zen Bertso Pilota emanaldia ikusi eta entzute- ra. Asko ziren euskara ikasten ari ziren gazteak. Eta haiekin egin genuen Argentinako lehendabiziko parranda. Han ikasi genuen garagardoaz gain fernetza ere edaten dela La Platan, eta gida turistiko-ek tangoaz hitz egiten badute ere cum- bia dela bertako gazteen gerriak dantzan jartzen dituen.

ITSAS ZAKURRAK NECOCHEAN

Distantziarik, denborarik eta ortzi-muga- rik gabeko errepide amaiezinei jarraika

Buenos Aireseko Boca auzoan, tangoa dantzatzen. Eskuinean, afaria La Platan.
GAUR8

Bertso saio bat egitekoak ginen Buenos Airesen eta han ari ginen, kantatutakoa nola itzuli zalantzan. Baina ez zen itzulpen beharrik izan: urteetako lanaren ondoren inguratu ziren hogeit bat lagunak gai ziren esaten ari ginena ulertzeko

Korrikako furgonetaren bila aritu ginen Necochean. Berriz ere begiak igurtzi behar izan genituen musika nondik zetorren argitzean: pick up gorri batetik. Txalekoak jantzi eta pankartaren atzetik korrika abiatu ginen 50 bat lagun



egin genuen La Platatik Necochearako bi- dea. Itsas zakurrak hondartzan tripaz go- ra etzanda zeudela egin ziguten harrera Euskal Etxeko gazteek. La Platako uniber- tsitatean ikasten ari ziren haietako asko. La Platatik ehunka kilometrotara bizi arren Aste Santuko opor egunez gozatze- ra joanak ziren kostaldera. Adinez jubila- tze-ko sasoia aspaldi gaunditua bazuen ere gaztetu ederra hartua zegoen Euskal Etxea. Maiteren eta Juanchiren eskutik ezagutu genituen pilotalekua, dantzako entseguak egiteko lokala, sukalde eta guzti hornitutako elkartetxea...

Euskara hutsez azaldu ziguten argen- tinarren ehuneko hamarra behintzat euskal jatorrikoa dela. Eta Buenos Aires- ko *pibe* haiez oroitu ginen, *vasco*, *galle- go*, *italiano*, eta abarrez. “Herri” eta “erro” hitzekin jolasean ari ginela eman ziguten Argentinan hain sakona den sentimendu horren berri: argentinarrak gehienak datoz beste nonbaitetik, ia ka- sualitate hutsa da haien arbasoek Neco- chea hautatu izana Donostiaren edo Ha- banaren edo Caracasen orde- z. Eta lurrean hanka puntetan zebiltzala irudi- tu zitzaidan, egokitu zitzairen lur hartan ahalik eta arrasto txiki- ena utzi nahian bezala. Hondartzan etzanda utzitako itsas zakurrez oroitu nintzen: mareak hara eramane eta isil- isilik itsasertze- an imajinatu nituen, zeruari begira. Gizaki begi txikiak zeuzkaten.

EUSKAL HERRI BAT BAFLEETAN

Afalostean mahaiak kolpera baztertu zi- tuzten ordurako lagun bilakatuak zitzaiz- kigun necochearek. Dantza egin behar genuela esan ziguten gerri ortopedikoak geneuzkan pilotari eta bertsolari- oi. Be- rriz ere cumbia dantatzeko prest egin



bakarti hartako gazteak. Azukrea gehiegi igo zidan fernetak nonbait.

CHACARERA DANTZA IKASTEN

Hainbeste euskal musikarekin konkista-tzaile konplexua sartzen ari zitzaidala aldatu zen melodia. Bi ilaratan jartzeko eskatu ziguten, bertako dantza bat ikasteko. Chacarera. Eta hizkuntzaren malabaristok ekilibrista traketsaren pausuan saiatu ginen gure artikulazioak ere kontinentez alda zitezen.

Eguna argitzera zihoan Euskal Etxetik lotarako utzi ziguten etxera abiatu gine-nean. Zakur beltz herren bat etorri zitzai- gun atzetik, eta Necochean egin ge- nituen egunetan gure taldeko kide mutu bilakatu zen. Akaso erro eta herri bila arituko zen zorriak kendu nahian hazka eta hazka ari zen gizaki begiko animalia hura ere.

KORRIKA ETA ABERRI EGUNA NECOCHEAN

Lo gutxi egindako aurpegiz hasi genuen apirilaren 16a Hego Haizeak Antartida- ko izotzaren erreka eta ipar haizeak Bra- silgo sambaren beroa dakartzan lurral- dean. Begietako makar-hondarrak kendu nahian ari ginela hurbildu ginen Necocheako Euskal Etxearen aldamene- an landatutako Gernikako Arbolaren ki- mutik sortutako haritzera.

Lore eskaintza egin berritan musika balkaniarra eta Izaroren ahotsa entzun genituen berriz. Korrikako furgonetaren bila aritu ginen Necocheako etorbide za- balean. Berriz ere begiak igurtzi behar izan genituen musika nondik zetorren argitu genuenean: pick up gorri batetik. Txalekoak jantzi eta pankartaren atzetik korrika abiatu ginen 50 bat lagun, espa- loietatik zuzentzen zizkiguten begirada txundituen artean.

Hirurehun metroko ibilbidean leku- koa elkarri pasaz egin zuen Necocheak lekua Korrikaren ibilbideak marrazten duen euskararen mapan. Eta Maitek za- baldu zuen lekukoa Argentinatik esan nahi ziguna irakurtzeko: arbasoengan- dik jasotako ondasunen artean altxor bat dela euskara ere; ikas daitezkeela dantzak, ikas daitezkeela musika, eduki daitezkeela zortzi euskal abizen. Baina hizkuntza dela guztiari batasuna ema- ten diona.

Ospakizunaren ondorengo luntxean gure mugikorretara wifi bidez ailegatu zen albistea: Necocheako Euskal Etxeak aurten ere “Hator hona” ekimena antola- tu duela, Euskal Herriko gazteek bertan egonaldi bat egiteko. Guk alde egin beha- rra geneukan. Viedma gure zain zegoen. Eta tartean, ia bihurtunerik gabeko erre-



Goian, itsas zakurrak, Necochean. Alboan, taldeko kideak Viedman. GAUR8

genuen korrua. Eta bafleetatik abesti bal- kaniar baten notak irten ziren, eta Izaro- ren ahotsa berehala, “Hizkuntzaren ma- labaristak”; eta Berri Txarrak eta Gatibu eta Sorotan Bele; eta kantu eta kantu ar- tean politikaz hitz egin genuen, kulturaz, etorkizunerako amesten genuen he- rriaz... Eta bat-batean herriko kioskoan Gipuzkoako egunkari salduena besapean nire “egun on”-ari *buenos días* batekin erantzuten dion auzokidea baino gertua- go sentitu nituen Atlantikoaren bazter

Eta bat-batean herriko kioskoan Gipuzkoako egunkari salduena besapean nire «egun on»-ari «buenos días» batekin erantzuten dion auzokidea baino gertuago sentitu nituen Atlantikoaren bazter bakarti hartako gazteak

Batzuetan, pilotalekuko harmailetatik begira geneuzkan aurpegi harrituei begiratu eta La Platako Historia Museoko indigena kaiolatuekin akordatu gara. Gure arbasoak izango ziren haiek ehizatzeraz joandako asko

pide bat, sekula bukatzen ez den lautada batean.

PATAGONIARRAK BERTSOTAN VIEDMAN

Asado-tik asado-ra iritsi ginen Rio Negro-ren ertzezko ikatzezko hondartzetara. Patagoniako aduana igarota iritsi ginen Viedmara. Tangorik dantzatzeko ez den Argentina bat ezagutu genuen han, itsas zakurrak umatzera joaten diren itsasertzen aldamenean. Bertan bertso saiorik eta eskuzko pilota partidurik sekula ez zela izan kontatu zigun Rociok, Euskal Etxeari mugimendua emateaz gain euskara klaseak gidatzeaz ere arduratzen den emakume beltzaranak. Maizpiden trebatutako doinu goierritarrezko euskararen egin zigun harrera. Eta Euskal Etxean euskaraz jolas egiten duten haurrengana gonbidatu gintuen, eta Pirritx eta Porrotx haize hotzak hegoaldetik jotzen duen lurraldeko haurrentzat ere magikoak direla ikasi genuen.

Edozertarako prest geunden ia bi aste-ko bidaiaren ondoren. Esku pilotaren inguruko azalpenak eman ondoren patagoniarrei bertso eskola bat eskaini genien. Eta argibide batzuk jasota bi bertso egiteko ere gai izan ziren. Buenos Aireseko euskaltzale haiekin oroitu nintzen, “Ni una menos” kanpainara euskara gehitu zutenekin. Patagoniarrei ere elkarren artean euskaraz bizitzeko tresnak ematen ari ginen.

LAPRIDAN: HAN ETA HEMEN

Patagoniarrak “Olentzero joan zaigu” doinuan bertsoan jarrita egin genituen Lapridara arteko 500 kilometroak. Monicak egin zigun harrera: birraitona azpeitiarra zuen emakume bizi eta urdu-riak. Belaunaldiz belaunaldi iritsi zitzaion Euskal Herriarekiko jakin-mina. Euskara galdu egin zen denboraren kate-begiren batean. Lehenengo aldiz Euskal Herrira joan zenean zer sentitu ote zuen galdetu eta pentsatzeko astirik ere hartu gabe eman zigun erantzuna: «hangoa nintzela, lur hura nire parte zela». Eta Argentinan ere gauza bera sentitzen zuela.

Pentsatu genuen zaila behar duela aldi berean bi lekutakoa izateak: aldi berean bi lekutan egonik beti lekuz kanpo egotea, aireportuan beste norbaiten maleta hartu duen bidaiariaren gisan. Lekuak ere ematen omen du identitatea. Eta arta-soroen arteko herrixka haietan pentsatu genuen Argentinan gizakirik gabeko lur asko egongo bazen ere euskaldunak iritsi zirenerako jendea biziko zela lur haietako batzuetan. Eta tragikoa eta kontraesankorra dela beste norbaiti



Goian, Viedmako haurrak euskaraz ikasten. Alboan, taldeko argazkia Lapridan.
GAUR8



ukatutako lurrek ematea Euskal Herrian ukatutako nortasuna.

INDIGENA BAT LA PLATAKO HISTORIA MUSEOAN

La Platako egonaldian bertako Historia Naturaleko Museoa ezagutzeko aukera izan genuen. Eta harrituta entzun genuen nola Patagonia “konkistatu” zenean (aurretik ez al zuen gazteleraz mintzo ez zen inork konkistatu bada?) bertako jatorrizko herriar batzuk ehizatu eta La Platako mu-

seora eraman zituztela, zientziaren izenean zibilizazioak ikusi eta ukitu zitzan.

Eta orain imajinatu bi bertsolari ia inork euskaraz ez dakien pilotaleku batean. Mundua gazteleratik bizi eta pilota partidu bat ikustera datozeinei bertsoak bota dizkiegu munduaren bestaldeko gure hizkuntza gutxituan; berezitasunaren eta exotismoaren muga; apaingarri soil izatetik une eta leku horri eduki bat ematera dagoen tarte estu horretan. Batzue-


tan, pilotalekuko harmailetatik begira geneuzkan aurpegi harrituei begiratu eta La Platako museoko indigena kaiolatuekin akordatu gara. Gure arbasoak izango ziren haiek ehizatzen joandako asko. Baina ehiztaritik eta ehizatutik, bietatik zerk bereizten gaituen galdezka hasi garen aldiro euskaraz mintzo zen argentinarrak bat etorri zaigu aldamenera, euskara Argentinara eta, batez ere, Argentina euskarara eramateko prest.



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



BOTERETZEKO TOPAKETAK

Euskal Herriko Bilgune Feministak bere urteurrena ospatuko du gaur Berrioazarren

FEMINISMOA / Xabier Izaga Gonzalez

Ospakizun urtea du honakoa Euskal Herriko Bilgune Feministak, hamabost urte bete berritan. Gaur Berrioazarren antolatu dituen VII. Topaketa Feministetan, urteurrena ospatzeaz gain, sare feminista indartu, Bilguneren proiektu politikoa erreferentzia gisa agerrarazi eta bere estrategia berretsi nahi du, boteretze feminista ardatz.

Urte berezia da oso Euskal Herriko Bilgune Feministarentzat hamabost urte bete ditueneko hau. Ospatzeaz gainera, baina, egindako ibilbideari begira jarri da, haren eta eginkizun dagoenaren azterketa egiteko. Urteurrenako lehen ekimena Valladolideko kartzelara joan zen Emakumeen Espetxe Martxa Feminista izan zen. Joan den martxoaren 25en, berriz, Ekonomia

Feminista foroa egin zuten, eta gaur bertan, Berrioazarren, Emakume Abertzaleon VII. Topaketa Feministak, "Indar bat gara gu" lelopean.

Orain arteko ibilbideaz eta aurrera begirakoaz hitz egin dugu Amaia Zufia Bilgune Feministako kidearekin, Berrioazarreko topaketak prestatzeko azken lanek utzi dioten tarte batean.

Atzera begira, hainbat lorpenen balioa azpimarratu nahi dutela dio, egindako ibilbidea oro har ospatu eta aurrekoen borro-

Emakume Abertzaleon
VII. Topaketa Feministen
aurkezpena, Berrioazarren.
Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI
PRESS

ka eskertu, horregatik diote, harro, duela hamabost urte euskal feminismoaren lekukoa hartu zutela, aurreko «arbaso» haien ondorengoak direla aldarrikatuta, eta euskal feminismoaren ikuspegi horretatik abiatu zirela, hiru zapalkuntza mota kontuan hartuz eta horiei askabideak bilatuz. Hiru zapalkuntza horiek, jakina, emakume, langile eta euskaldun gisa zapaltzen dituztenak dira. Edonola ere, urteetan aurrera egin ahala, beste askotariko zapalkuntza batzuk ere aitortzen ikasi dute, eta beren «begiradan» txertatu dituzte: sexualitateari, kulturari, hezkuntzari eta beste esparru batzuei dagozkienak.

Zufiak azpimarratu duen beste elementu bat «sarea» da. Duela hamabost urte Bilgune alternatiba feminista gisa sortu zen, estrategia feminista bat garatzeko, eta bide horretan ba omen zekiten berme nagusia Euskal Herrian zeuden emakume abertzale eta feministen sarea jostea izango zela, bai herriz herri bai eremuz eremu. Hartara, Bilguneko taldeetan ez ezik, herri mugimenduan, kulturgintzan, hedabideetan, euskalgintzan, hizkuntzan eta abarretan ere badaude, nolabait sare bat osatuz, beren proiektu politikoa elikatzeko presentzia hori ezinbestekoa zela ikusi baitzuten. Konexio horiek aktibatu eta aliantzak erein dituzte mugimendu feministan. Zufiak dioenez, feministek badute indargune bat: bakarrik jardunez mundua aldatzea oso zaila dela konturatu izana. Hortaz, hasieratik aliantzak eta sareak ezinbestekoak izan dituzte, eta mugimendu feministan hainbat elkarlan bilatu dituzte: Emakumeen Mundu Martxa, data zehatzak antolatzeako koordinakundeak, ekimen bereziak, hala nola joan den urteko Feministok Prest ekimena, Abortu Legearen aurka manifestazioak...

Ezinbestekoa dute, halaber, euren proiektu politikoa integrala eta holistikoa izatea, «ez da txosten baten zati gehigarria, guk herri feminista bat eraiki nahi dugulako, anbizio politiko horrekin jaio ginen. Horrek eskatzen digu, eta gizarteari eskatzen dio, eremuz eremu dauden zapalkuntza





eta indarkeria patriarkalei muga jarri eta bistaratzea, eta harreman ereduak eraldatzeko proiektu eta estrategiak garatzea».

Hamabost urteotan egin duten beste ekarpen garrantzitsu bat militantzia ereduak eta kultura politikoak iraultzea izan da, beste modu batez pentsatuz, militantzia eta plazera uztartzea posible

dela, zaintzak erdigunean jartzea posible dela eta hori ere ekintza politikoa dela ikusaraztea. Izan ere, orain garatzen ari diren ideia osatze eta sanazio prozesuen ingurukoa da. «Gorputzean ditugun minak oso politikoak dira, zapalkuntza sistema batean bizi garen heinean sortzen direlako, eta militantziak eta aktibismoak

tarte bat egin beharko lioke gorputzaren osaketari, modu kolektiboan planteatuta, ditugun gaitz, ezinegon eta samin horiei guztiei modu indibidual eta pribatuan aurre egin beharrean».

Oso elementu garrantzitsua iruditzen zaie feminismoa euskaraz egitea ere, «gure praktika politikoak eta gure ezagutzak

Feministok Prest
ekimenak iaz deitu zuen manifestazioa, Gasteizen.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

euskaraz sortu eta eraikitzea». Argi du Zufiak feminismoak kontzientziazio maila handia lortu duela. «Gaur egun indarkeria matxistaren aurkako kontzientzia handia dago, instituzioetan legeak, bitartekoak mahai gainean jarri dira», baina arrisku berriak ere badituzte, eta batzuetan «zuritze ariketak» izaten dira, eta feminismoa diskurtsiboki ez dela hainbeste estigmatizatzen egia bada ere, azaletik sakonera, praktikara pasatu, harreman ereduak, praktikak aldatu beharra dagoela dio. «Lehentasuna zeri ematen zaion, zein den benetako arazoa gizarte honetan eta zein bigarren mailakoa, zein den benetako albiste eta zein bigarren mailakoa, zeri bideratzen dizkiogun bitartekoak instituzioetatik...», horretan guztian asko omen dago egiteko.

BOTERETZEA, ARDATZ NAGUSIA

Gaurko topaketen helburu nagusiak, ospatzearekin batera, honako hauek dira: sarea indartzea eta Bilgune Feministaren proiektu politikoa erreferentzia gisa agerraraztea, bere estrategia berretsi eta urratsak ematea, emakume abertzale eta feminista guztiekin batera, ardatz nagusia



V. Topaketa Feministak, Leitzan, 2012an. Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

ABERTZALE FEMINISTEN TOPAKETAK, MUGARRIAK

Hamabost urteko ibilbidean zenbait mugarri jarri ditu Euskal Herriko Bilgune Feministak, gehienak Emakume Abertzaleon Topaketa Feministetan kokatuak. Topaketok emakume abertzale eta feministekin elkartzeko guneak dira, diskurtsoak trukatu eta sortzeko guneak, eta, batez ere, norabide eta estrategia politikoak

markatu eta elkarrekin ahalduztzekoak. «Zure herrian, zure bakardade horretan zaila da feministok garen indar hori nabarmentzea, eta egun horietan ehunka emakume elkartzean, sekulako boteretzea gertatzen da», dio Amaia Zufia Bilguneako kideak.

Euskal Herriko Bilgune Feminista 2002an sortu zen. Hala ere, izandako aurrekarietako bat Emakume Abertzaleon I. Topaketa Feministak izan ziren, 2001ean, Bilgunea sortu

baino lehen, beraz. Leitzan bilduta, Euskal Herriko emakumearen egoeraren diagnostikoa egin eta mugimendu feminista nazional baten beharra nabarmendu zuten.

2003an, Bilgunea eratuta, Eibarren egin zituzten II. Topaketa Feministak ekintza eremu nagusiak definitzeko. Eremu horiek hezkuntza, sozioekonomia, komunikabideak eta kultura dira. Haietan bai sareak bai proiektuak garatu beharko zituzten.

boteretze feminista dela. Hartarako euskal feminismoaren osasuna aztertuko dute, aktibismo feministaz, konpromisoaz, militantzia ereduez, jakintzaz, kolektibitateaz, ikusgarritasunaz jardungo dute. «Feministak lehen baino ikusgarriagoak gara, baina boteretuta gaude? Noraino? Termometroa sartuko dugu kontu horietan guztietan, eta ikusiko dugu non gauden boteretuta, non ari garen eragiten eta non ez, zein diren oztopoak eta arriskuak», dio Zufiak.

Eta horrekin batera ikusiko dute boteretze feministarako prozesu batek eduki beharko lituzkeen baldintzak, zer pauso, zer ezaugarri izan behar dituen, «eta zer botere motaz ari garen, oso botere eredu bertikal, hierarkiko, patriarkala ezagutu dugulako». Beraz, aldarrikatzen duten boteretzeak zer ezaugarri izango lituzkeen zehazten joateko asmoa dute, zertarako nahi duten, nola eraiki eta nola kudeatuko duten. Estrategiaz hitz egingo dute, baina baita gorputzeaz eta praktikara eramateaz ere. Horrenbestez, gaur goizeko mahai inguruan gai horien guztien gainean eztabaidatuko dute eta arratsaldean tailerrak egingo di-



2014ko Topaketa Feministen kartela. Monika del VALLE | ARGAZKI PRESS

tuzte, boterea gorputzetik eta praktikatik lantzeko.

Gaur egun bost ildo nagusitan ari dira lanean. Bat, gatazka politiko armatuaren konponbidean, ikuspegi feminista txertatuz,

emakumeen parte hartzea da. Zufiak dioenez, «badakigu bakearen eraikuntza ez dela apirilaren 8ko desarmatzea bakarrik; horrek aukera eta baldintza berriak eskaintzen ditu, aprobe txatu be-

Bilgune Feminista alternatiba feminista gisa sortu zen, eta, bide horretan, bazekiten berme nagusia Euskal Herriko emakume abertzale eta feministen sarea jostea izango zela

Aldarrikatzen duten boteretzeak zer ezaugarri izan beharko lituzkeen zehazten joateko asmoa dute, zertarako nahi duten, nola eraiki eta nola kudeatuko duten

har ditugunak, noski, baina bakea epe luzeko prozesua da, giza eskubideen eta naturaren errespetuarekin eta abarrekin zerikusia duena, eta ezinbestekoa izango da bakearen kontzepzioan emakumeon bizitzan indarkeriarik eza bermatzea». Beste lan ildo bat sozioekonomikoa da, eta joan den martxoaren 25ean Azpeitian antolatu zuten foroan heldu zioten. Hirugarren ildoa gaur izango dute eztabaidagai Berriozarren: eragina, lidergoa eta boterea. Eraikundetza da laugarrena. «Trantsizio feministaren bidean eraikundetze publiko bat beharko dugu Euskal Herrian, herri prozesu bat egingo badugu, instituzioen bestelako egituratze bat be-

harko dugu, eta feminismotik nolako egiturak, nolako erakundeak behar ditugun aztertzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, emakumeon zapalkuntzari muga jartzeko, baita azken aldian egin diren urratsetan ere, hala nola Ipar Euskal Herriko Elkargotan edo Nafarroako aldetan, feminismotik nola eragin geneza-keen aztertzea». Azkenik, beste lan ildo estrategiko bat arestian aipatutako osaketa da, «borrokak eta antolakuntzak zaintza eta osatzearen eskutik ere etorri beharko dutela ulertzen baitugu».

Berriozarren elkartuko diren 600 emakumeek lan handia dute aurretik, baina baita, zalantzarik ez, zer ospatua ere.

Bi urte geroago, «bake prozesua pil-pilean zegoen momentuan», nazio gatazka politiko armatuaren konponbidean emakumeen parte hartzea izan zen gai nagusia Bilbon egindako III. Topaketetan.

2009an, Tolosan, bi gai izan zituzten eztabaidagai. Batetik, instituzioek bideratzen dituzten politika eta planen inguruko hausnarketa egin zuten: nolakoak izan behar duten plan, lege eta politikek «benetan emakumeon egoera iraul dezaten». Eta bigarren gaia ordurako mugimendu feministan orokortu eta errotutako eztabaida batekin zegoen lotuta, identitateen gainekoari, hain zuzen. Zehatzago, identitate politiko feministen gaineko eztabaidari.

Alegia, «Euskal Herriko eraldaketa gauzatzeko zein subjektu feminista den beharrezko, zein praktika feminista...».

ESTRATEGIA GAURKOTZEKO PROZESUA
V. topaketak 2012an izan ziren. Berriro ere Leitzan elkartu ziren Bilgune Feministaren hargarren urteurrena ospatu eta plan estrategikoaren berregokitzapenari heltzeko, hamar urte haietan zertan aurrera egin zuten eta zer hutsune zituzten aztertuz.

2012an hasitako estrategia- ren gaurkotze prozesua 2014an Ondarroan egin zituzten VI. Topaketetan gauzatuko zen. XXI. mendean izandako aldaketa prozesuak, krisi ekonomikoa, neoliberalismoaren ofentsiba,

Euskal Herriko ziklo politiko berria eta feminismoaren garapen teoriko eta praktikoa aztertu, eta, aldaketa prozesu horietan Euskal Herriko emakumeak nola zeuden kontuan izanda, beren estrategia feminista egokitu zuten. «Ondarroan gure iparra, gure utopia berrizendatu genuen», dio Amaia Zufiak. Bilguneren helburu nagusia burujabetza da, baina burujabetza feminista, eta, horretarako,

momentu horretatik bertatik trantsizio bat abiatu beharra sumatu zuten. «Trantsizio horretan uztartzen dira alternatiba txiki-handien eraikuntza, indarrean dagoen ereduaren aurreko erresistentziak sortzea eta hainbat eremutako feministen artean proposamen politikoak eta epe luzeko konpromisoak adostea».

Horrek «etxeko lanak» ekarri zizkien. Horietako bat feminis-

ten eragiteko gaitasuna eta ahalmen politikoa handitzea izan zen. Feminismoa noraino zabaldu zen ikusita, eremu gehienetan presente baitago, talde feministetatik harago, hedabideetan, sare sozialetan, hezkuntzan, alderdietan... eragin nahi zuten. Baina badakite, halaber, askotan eredu aldatzeko, oso maskulino eta patriarkalak diren ereduak aldatzeko, nahikoa boteretik ez dutela. Eta Euskal Herriko burujabetza prozesu baten baitan proposatzen duten trantsizio feminista abiatzeko, beren eragiteko gaitasuna eta boterea, beren indarra azken batean, artikulatu, bultzatu eta areagotu behar dutela dio Zufiak. Horixe da, hain zuzen, VII. Topaketen zeregina.

Euskal Herriko Bilgune Feminista 2002an sortu zen. Hala ere, izandako aurrekarietako bat I. Topaketa Feministak izan ziren, 2001ean, Bilgunea sortu baino lehen, beraz



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Zaramalogia


Gaurkoan Joseba Sarrionandiaren poema urratzeko lizentzia hartu dut lerroetan. Zaramaren logiaz aritzea, zaramatik zientzia egitea, humanitatea ezagutzeko bide zuzen eta gaurkotua iruditzen zait, baita gure buruari begira jartzekoa ere. Sortzen dugun zaramari begiratzea eta irensten dugun zarama andanaz kontziente izatea, ariketa sana bada behinik behin. Zarama baita behar ez duguna, soberan duguna, etekinik ikusten ez dioguna, eta are, oztopo bilakatzen zaiguna. Eta zarama da ere materia anabasa horren guztiaren kudeaketa, etekinaren logika kapitalistan, bide errazetik (errentagarritik) kontsumitzeko zarama besterik eskaintzen ez diguna. Erraustegia eraikitzen hasiko zaizkigunean, merkeena palma olio eta azukrez aurrez prestatutako jakiak ahoatzea da, eta erosoena, informazio anabasatik erauzten dizkiguten egia gozo(ki)ak irenstea; litxarkeriak!

Zaramaren poetikaren irudi gogoangarria egin zait beti izarrei begira ematen ahal den eszena erromantiko hori: kosmosari begiak zabal-zabalik, lasaitasun isila izar iheskor batek urratzen duen une zirraragarri hori... zer liluragarria den sateliteren batetik askaturiko torlojuxoa atmosferan erretzen ikustea! “Dir-dira duen oro ez da urre” artikuluan espazioko zarama gai hartu nuenean aipatzen nituen datu batzuk eguneratu direla ikusi berri dut: 1957an Sputnik satelitea orbitan jarri zenetik ia bost mila irteera izan dira eta 18.000 objektu inguru jarri dira orbitan. Egun 1.100 satelite dira funtzionalak eta gainontzekoa zarama besterik ez dira. Are, zarama talken bidez birproduzitzen doa eta gaur egun zentimetro bat inguruko 700.000 eta milimetro bat inguruko 170 milioi zatitxo daudela kalkulatu da. Milaka kilometro orduko abiaduran bidaiatzen duten zatitxook sateliteek izkin egiteko maniobrak egitea eragiten dute dagoeneko eta batzuk Kessler sindromea ematearen beldur dira, zeinaren arabera, orbita jakin batean dauden zatitxoak desagerpen tasa talka tasa baina txikiagoa denean, kate erreakzioa eman daitekeen, orbita erabilgaitz eginez.

Zarama “aurrerabidea” oztopatzera heldu da, antza. Orbitak kolapsatuz, zainak blokeatuz, birrikak zikinduz eta garunak intoxikatuz. Hazkundearen mugaren iragarle dirudi zaramak. Azkenaldian zientziaren erabileraz hitz egin izan dut, marxista samar, mundua deskribatzeko ez, eraldatzeko aztertu behar dugula aldarrikatuz. Zaramari arreta jarri behar diogu, zarama eteteko bideei, eta ziur aski deskubrituko dugu kapitalismoari aurre egiteko gakorik. Ezkerrak “osasuna” oihukatuz egiten du topa. Bada garaia bizitza erdigunean jarrita pentsatzen eta ekiten hasteko eta zarama eteteari dago-kion garrantzia emateko!

«Zaborrontzi bakar kosmosaren bazterrean (bakarra bere bakardadean)/ mugarik gabe, ahotik oka eginez (goitika eginez) enpatxaturik./ Kosmoseko andre gizonek espazio-ontziak arretaz zaintzen dituzte./ Hara hor gure teknika material eta sakonaren hondarrak,/ tamaina ezberdinetan edonondik eta edonoiz datozen hondakin/ enigmatikoak. Begira egiezu izar iheskorrei, zelan erretzen diren,/ eta egin humanitatearen behar inti-

moen historia./ Zarama orbitetan dene-tik, sateliteak eta bere soberakinak,/ NA-SAko artxiboan baino astronautikari bu-ruzko datu gehiago./ Hara hor erregai tanke hutsak, partikulak eta sateliteak,/ sputnik herdoildua, meteosat kadukatua, Laika hilak,/ milaka kilometro orduko abiaduran partikula lehergarri bihurtuko diren torlojuxoak./ Zaborrontzi bakar bat kosmosaren bazterrean (bakarra bere bakardadean)/ Igarri metalezko anabasa orbitalaren mezua: ugarian eta naharoan akabatuko gara,/ planeta berriak topatu beharko ditugu gainbizitzeko alde hone-takoek,/ bestaldekoak zarama irentsiz hiltzen diren bitartean./ Hara hor nazio-arteko estazioa zarama gainean, eta hel-du den estralurtarra,/ estralurtar gaixo hori orbitan dugun zaramaren artean bi-zitza adimentsuaren xerka agian./ Zabo-rrontzi bakar bat kosmosaren bazterrean (bakarra bere bakardadean)/ etorkizune-ko estetika, joankizuneko etika/ zibiliza-zioaren poetika formulatzen,/ dizdira eta lilura biziz datozen/ izar iheskorren zain,/ astiro eta astun materia birrinduz heldu den/ entropiaren zain». •



Espazioko zaramaren irudikapen bat. NASA

{ koaderno } Iker Barandiaran

Belaunaldi batek apo tematiei

O rriotara El Corazon del Sapo taldea ekarri du Amagoia Mujikak. Aragoiko jatorria duen taldeak bere ibilbidea eten zuenetik hamazazpi urte pasa dira eta ezustean bueltan dira Hatortxu Rock-en alde beraien alea emateko. Iraganean taldea bere horretan ezagutu genuenok horrekiko oroitzapen ederra daukagu; eta han egoterik izan ez zutenetako askok –momentuan momentukoa barik bizi gabekoa mirestekio joerak– esperientzia hori nolabait bizi izateko irrika. Ia hogeitaz urte pasa dira taldea indarrean zegoenetik, baina inongo zalantzarik ez daukat indar betez izango dela bueltan: musika zaletasun amorratuaz harago, konpromisoak eta koherentziak batu ditu beti proiektu honetako kideak, eta ez dute inoiz taldearekin txantxetarako betarik hartu; aragoiar hauek halako tematiak dira.

90eko hamarkada bete-betean bizi izan genuenontzat kuttuna izan zen garai hori eta horren parera gordetzen dugu El Corazon del Sapo ere, garai horrekin estu lotzen duguna gainera. Ipar gabe edo ideia faltan zegoen Espainiako Estatuko hardcore-punk eszenari freskotasun itzela gehitu zion, musika eskaintza energetiko, konprometitu eta irudimentsua eskainiz. “La imaginación contra el poder” estreinako lanetik abiatuta taldeak begi eta belarri asko zabaldu zituen. Eta, jakina, azkar baino azkarrago Estatu osotik musika eszena indartsuena eta underground azpiegitura sendoena zuenak, Euskal Herrikoak, besoak zabalik hartu zuen taldea. Haiek ere etxeko sentitu ziren eta askotan izan zen taldea gure artean; poliki-poliki hemengo egin zen hein handi batean.

90eko hamarkadako lehen erdiaz hitz egiten ari gara, eta 80ko hamarkadan izandako eztrandatik kimu asko zeuden sasoi hartan gurean autogestio, kontrainformazio eta asanblearismoaren alorrean. Herri ia guztietan gaztetxeak zeuden, lan egiteko gogoa eta moduak kontzienteagoak eta eraikitzaileagoak ziren eta azpiegitura sendo samarrak eraikita zeuden: irrati libreak, fanzineak, diskoetxe independente batzuk, banaketa alternatibo sareak, antidesarrollismo izaera, sormena barra-barra eta musika zale ugari, besteak beste. Are gehiago, 90eko

hamarkadak iraganeko punk vs heavy dikotomia (jada antzua zena) apurtu eta musika estilo zein gustuen irekiera itzela ekarri zuen berarekin batera. Hala, estilo askoren arteko mugek eztanda eginda irekierak fusio aberatsa ekarri zuen, musikari ere on egin ziona. Hemen aipatutako taldea ere horren adibide argia izan zen.

Ez dut El Corazon gurtu nahi, bere taldekideen izaerarekin inola ere bat ez datorrelako, baina ezin da ukatu Aragoiko taldeak kantu indartsu, itsaskor eta mezuz betetakoez gozarazteaz gain, gauza asko ekarri eta gogorazki zizkigula: kontzertuetan guztia eman beharra zegoela, zabaldutako mezua egin edo eskainitakoaren erdia baino gehiago dela, eta konpromisoa zein koherentzia, agertokian zein azpian ezinbestekoak direla, hain zuzen ere.

Ez zuten bolbora beraiek bakarrik asmatu, baina egia da ere Estatuko beste herrialde batzuetan ematen ari zi-

Ez dut El Corazon del Sapo gurtu nahi,
taldekideen izaerarekin bat ez datorrelako,
baina ezin ukatu Aragoiko taldeak kantu
indartsu, itsaskor eta mezuz betetakoez
gain, gauza asko ekarri zizkigula

ren problematikei buruz begiak zabaldu zizkigutela, eta gaztetxe zein etxe okupatuen azpiegitura horretan barrera kausa txiki horiek bata besteari lotuz saretzeko bidea ere erraztu zutela. Garai hartan hein handi batean hemendik harat behatzea falta zitzaigun eta beste borroka eta langintzei ere erreparatzea. Haiek moduko talde gutxi batzuei esker hemen bizi genuen burbuilatik burua atera zuen jende gehiagok eta herrien arteko parekotasunak antzeman.

Hori horrela, orain hamazazpi urte pasata, aurretik eskaintza ugari uko eginda, Hatortxu Rock-en helburu eta izatearekin bat egiteko batzea erabaki dute, horretan sinisten dutelako; eta, gainera, itzulera honen harira batuko duten diru apurra –baina duina erabatekoa– errefuxiatuen alde lan egiten duen Zaragozako plataformari emango diote. •

«Umetatik injustiziak distortsionatu egiten nau»

Badira hamazazpi urte apoaren bihotza pausatu zela. 2000. urtean isildu zen El Corazon del Sapo talde aragoitarra. Orduko “La Casa Magnetica” diskoa (2000) bini-loan berrargitaratzeko aukera izan dute orain, eta horri tiraka bira txiki bat atondu dute, “2017 formas de matar con unos tirantes” izenarekin. Hiru kontzertu iragarri dituzte: Zarautzen, Zaragozan eta Lakuntzan. Sarrerak airean ari dira saltzen. Diskoarekin eta birarekin biltzen duten diru guztia Zaragozako errefuxiatuen babeserako taldearentzat izango da.

Izan da, baina, iragarri gabeko kontzertu “sekreto” bat, joan den apirilaren 23an, Zaragozako Kike Mur zentro sozial okupatuan. Gaur egun mugimendu kultural eta askearen egoitza koloretsua da. Garai batean, baina, Torrero kartzela izan zen, gogorra, iluna, zapaltzailea eta tristea. Torrero kartzelak pisu handia izan du apoen historian, Fernando eta Guillermo taldeak bertan preso egon zirelako intsumisioagatik. Gainera, Kike Mur intsumisioa Torrero kartzelan eta arreta medikurik gabe hil zen, Fer beraren eta Guillermoren besoetan. Horregatik guztiagatik oso berezia eta bizia izan zen El Corazon del Saporen taupada Torrero kontzertuan, Fernando Apoak berak kontatu digunez, «mendeku txiki bat».

Fer Aragoin jaio zen, Ejea de los Caballeros herrian, Tuteratik Zaragozatik baino gertuago. Aspaldi konturatu omen zen, baina, euskalduna dela. Duela bi hamarkada inguru kasik asteburu Euskal Herrira kontzertuak ematera etortzen zen adopzioko euskalduna; betidanik askotariko borroka sozial eta politikoe-tan euskal herritarrekin indarrak batu dituen militantea; 2003az geroztik, Euskal Herrian bizi den euskalduna.

«Jende askok pentsatu izan du El Corazon del Sapo Euskal Herriko taldea dela. Ez dakit zergatik, baina ni beti sentitu izan naiz Euskal Herriaren parte. Gaztetxotatik Bardeako tiro po-

FERNANDO APOA

ABESLARIA ETA MILITANTE SOZIAL ETA POLITIKOA

El Corazon del Sapo taldea grina batetik sortu zen, borroka sozial eta politikoa akuilatzeko. Orduan hasi zen abesten

Fernando Apoa, taula gainetik mundua iraultzeko. Taldea isildu eta 17 urtera, bira txiki bat abiatuko dute, gaur, Zarautzen. Maiatzaren 13an Zaragozan izango dira, eta, uztailaren 29an, Lakuntzan, Hatortxu Rock jaialdian. Fer, gainera, Estricallarekin eta apoekin arituko da Lakuntzan.

amagoia.mujika@gaur8.info



ligonoaren kontrako borrokan aritu izan gara, Itoizko Koordinakundearekin lotura izan dugu... Egia esan, Iruñea alderako joera handia izan dugu. Gero, Corazon del Saporekin hasi ginenean, ia astebururo Euskal Herrian izaten ginen».

Euskal Herriarekin duen lotura, beraz, aspaldikoa da, eta oso estua. Bere birraitona Izabakoa zen, «amonaren arabera, Erronkariko kaskagogorra». Eta Fer berak ere dezente du egoskorretik. Berea inkonformismo tematia eta nekaezina da.

Abeslaria eta letragilea da. El Corazon del Sapo (1991-2000) izan zen lehen taldea eta atzetik etorri dira Kuraia, Kop talde katalanarekin grabatutako diskoa, Kloakao eta Estricalla. Berak, baino, ez dauka bere burua musikaritzat, «are gutxiago artista-tzat». Militante politikoa da eta militantzia horrek bultzatu du taula gainera.

IGANDE ARRATSALDEKO IRAKURKETAK

«Musikara berandu sartu nintzen, 21 urte nituela, eta militantzia eta aktibismo politikoak eraman ninduten musikara. Aurretik ez nuen sekula abestu. NATOr buruzko erreferendumarekin lotu nintzen militantzia eta 13-14 urte nituenerako erabat sartuta nengoen antimilitarismoan, antiinperialismoan eta ‘anti’ guztietan. Pixkanaka borroka sozial eta politiko desberdinetara lotzen joan nintzaen, oso modu primitibo eta intuitiboan. 17-18 urte nituela Zaragozara joan nintzen irakasle ikasketak egitera eta zuzen-zuzen sartu nintzen borrokan zebiltzan kolektiboetan. Ikasle borrokan eta garaiko greban ere parte hartze aktiboa izan nuen eta behin baino gehiagotan atxilotu ninduten. 17-18 urte nituenerako kartzelan sartzeko arriskua oso presente nuen».

Modu primitiboan eta intuitiboan ulertzen du bere borroka Fernandok. Injustiziek asko amorrarazten dute eta borroka txikiek astindu handiak ekar ditzaketela sinisten du. «Ez dut formakuntza politikorik izan. Oso intuitiboa izan naiz beti eta begietatik sartu zaidanak gidatu

nau, ez hainbeste belarrietatik sartu zaidanak; alegia, besteek esaten dutenak. Nire etxean betidanik asko irakurri izan da. Ama irakaslea da eta etxean liburu asko izan dira beti. Gogoan dut oso umea nintzela neguko igande arratsalde osoak ematen nituela etxean irakurtzen. Difusora Internacional izeneko argitaletxearen urtekariak irentsi egiten nituen: 1960ko hamarkadatik aurrera urtez urte gertatu zena, kultura arloko gertakariak, pertsonaia garrantzitsuak, gertaera politikoak... Gogoan dut oso umea nintzenetik asko gusatzan zitzaidala urtekari horiek begiratzea, bereziki argazkiak. Gerora nire taldeen diskoen diseinuetan asko erabili izan ditut argazki horiek».

Umetatik izan du Fernandok munduari begiratzeko modu propioa. «Eskolan arraro samar sentitzen nintzen batzuetan. 12-13 urte nituenerako Yasser Arafati buruz, Nelson Mandelari buruz, *apartheid* sistemari buruz, 68ko maiatzaz, sandinistez edota korsikarrez hitz egiten nuen. Mitologia hori guztia nire baitan izan dut oso umetatik. Eta horretan parte handia daukate igande arratsaldetako irakurketa haiek. Horrekin guztia-ekin hazi nintzen eta horrekin osatu nuen nire ideologia. Ez daukat ideologia zehatzik, beti hartu izan dut mugimendu bakoitzetik baliagarria zaidana, borroka bakoitzetik miresten dudana... Ez naiz inoiz oso ortodoxoa izan, nahikoa eklektikoa naizela uste dut». Handik eta hemendik josia den bere mundu ikuskerak ardatz sendo bat dauka: «Umetatik injustiziak distortsionatu egiten nau».

Orduan, umea zenean, Fernando Gimeno zen. Orain, Fernando Apoa da. Zertan dira desberdinak? «Asko aldatu naiz. Batzuetan, ez dut nire burua ezagutzen. Batez ere ez dut nire burua ezagutzen umetatik ezagutzen ditudan pertsona batzuekin nagoenean. Bergaminek esaten zuenez, ‘Españian fantasma bat bezala sentitzen naiz’, eta niri antzeko gertatzen zait. Euskal Herritik ateratzen naizenean, fantasma bat bezala senti-

tzen naiz. Estatuan barna ibiltzen garenean askotan hona bueltatzeko deseatzten egoten naiz, han tokiz kanpo eta arraro sentitzen naizelako. Gimeno zeozer ere badaukat, baina, batez ere, asko daukat Apoatik. Nire baitan deskolonizazio prozesu indartsu bat gertatu da; umetatik inguratu nauten ideiak eta sinismenak erantzi egin behar izan ditut. Horretan parte handia izan du musikak. Musikak ez nau aldatu, musikak naizen bezalakoa egin nau. Musikari esker ezagutu dudana jendea, egin ditudan bidaia, irakurrirri ditudan liburuak, jaso ditudan ikuskerak... horrek guztiak eraiki egin nau. Horrek guztiak Fernando Gimeno deseraiki eta Fer Apoa eraiki du».

Ferrek, baina, oso garbi markatuta dauka pertsonaren eta pertsonaiaren arteko langa. «Ni oso desberdina naiz taula gainean eta azpian, eta horrela izatea nahi dut. Musikaren munduan marra hori gainditu duten pertsona asko ezagutzen ditut, sortu duten pertsonaia erantzi gabe ibiltzen direnak, eta horrek asko estutzen nau. Niretzat borroka norabide berdinean bultzaka ari den jende anonimo askoren indarra da. Sekula ez dut liderretan sinistu. Are gehiago, une honetan liderrak baino gehiago ideia onak behar ditugula uste dut. Ni erosoago sentitzen naiz atzetik bultzatzen egiten lehen erroan tira egiten baino. Hori bai, egurra banatzen dutenean, normalean lehen erroan egoten naiz».

Fer Apoaren begietara musika eraldaketa sozial eta politikorako tresna da. Oso garbi dauka. «Niri sekula ez zitzaidan burutik pasatu musika talde bat sortzea. Are gehiago, ez nuen musikarekin harreman berezirik izan El Corazon del Sapo taldearekin hasi arte. Musika entzuten nuen eta sinistuta nengoen letra konprometitu horiek kantatzen zizutzenak oso militanteak zirela. Baina askotan konturatzen nintzen ez zela horrela, festak lehentasuna zuela. Eta kezka horretatik sortu genuen taldea, gure militantzia politikorekin luzaipen bat bezala».



Argazkiak: IKOR KOTX

Fernandok eta Casponek –taldeko lehen bateria– atxilotuta zeudela ezagutu zuten elkar. Aktibismo politiko biziko urteak ziren eta atxilotetak maiz gertatzen ziren. «Atxilotu eta hilabete batzuetara epaiketa izan genuen. Tarte horretan maiz biltzen ginen abokatuekin, epaiketa prestatzeko. Nik banekien Casponek bateria jotzen zuela eta nire lagun Guillermok gitarra jotzen zuela aipatu nion. Bere lokalera joateko esan zidan eta han biltzen ginen hirurok askotan. Haiek musika egiten zuten eta nik ez nekien instrumenturik jotzen. Gainera, ez zitzaidan asko interesatzen. ‘Letrak badituzu?’, galdetu zidaten. Eta nik beti letra mordoa izaten nuen kutxetan gordeta. Hasieran kantatzen baino, errezitatzen hasi nintzen. Eta, konturatzerako, hilabete gutxiren buruan, El Corazon del Saporen lehen lana grabatzen ari ginen. Dena oso azkar joan zen».

Musika borroka bultzatzeko, borroka akuilatzeke. Hartara, El Corazon del Sapo beti egon da oso lotuta era guztietako aldarrikapenekin.

«Borrokaaren parte sentitzeak asko hunkitzen nau, umetatik. Niretzat manifestazio bakoitza une oso garrantzitsua izan da, sinistuta nengoelako mundua aldatzera gindoazela»

«Kontzertu bakoitza ekintza politiko bat da. Horrela ikusi izan ditut beti gure kontzertuak; ez hainbeste festa bat bezala, borrokaaren aldarrikapen bat bezala baizik»

«Gogoan dut jendaurrean aritu ginen lehen aldia. Ejeako taberna batean izan zen, 1991n. Zortzi-hamar abesti genituen eta kontzertuaren erdian aitona bat agertu zen oihuka, soinu asko ateratzen ari ginela. Tabernaren gainean bizi zen eta justu alkatearen aita zen. Sekulakoa sortu zen. Udaltzainak etorri ziren eta ‘Gimeno, Gimeno, lasaitu’ esaten zidaten. Ja nahikoa ezaguna nintzen, saltsa guztietan nengoelako».

MUNDUA ALDATZEKO GRINA

Oso gatzetxotatik manifestazio edo protesta ugaritan parte hartu du, beti lehen erroan, eta aldiro zirrara berezia sentitu du. «Borrokaaren parte sentitzeak asko hunkitzen nau, umetatik. Niretzat manifestazio edo protesta bakoitza une oso garrantzitsua izan da, sinistuta nengoelako mundua aldatzera gindoazela. Eta berdina pentsatzen segitzen dut. Zaila dago, baina mundua aldatzeko gaitasuna dugula sinisten segitzen dut. Askotan historiak harritu egiten zaitu eta metxa txiki batek dena hankaz gora jartzen du. Ezin zaio sinis-

teari utzi eta, batez ere, ezin zaio borrokatzeari utzi».

Manifestazio bakoitza une historikoa eta errepikaezina da Fernandorentzat eta kontzertuak berdin bizi ditu. «Niretzat kontzertu bakoitza ekintza politiko bat da. Horrela ikusi izan ditut beti gure emanaldiak, ez hainbeste festa bat bezala, borrokaaren aldarrikapen bat bezala baizik».

Duela bi aste Zaragozako Kike Mur zentro sozial okupatuan emandako kontzertuak borroka karga handia izan zuen, hain justu. «Torrerokoa kartzela oso gogorra izan da eta martxan egon da duela urte batzuk arte. Preso anarkistak, antifrankistak, homosexualak, sistema ekonomikoaren biktima diren milaka eta milaka preso sozial, Aragoiko klase pobreenetako belaunaldi desberdinak, intsumisoak, independentistak... Benetako zuloa izan da kartzela hori, zaharra, iluna eta oso gogorra. Kartzelak asko aldatu ninduen, erabat birrindu ninduen. Militatzen hasi nintzenetik garbi samar neukan nik kartzelatik pasatzea egokituko zitzaidala,

berandu baino lehen, borroka bat edo bestela zela-eta. Azkenean intsumisioak eraman gintuen kartzelara. Beti pentsatzen nuen indartsu sartuko nintzela eta eutsi egingo niola. Baina ez zen horrela izan, nire bizitzako etaparik tristeena eta ilunena izan zen. Horregatik niretzat ezinbestekoa da presoekiko elkartasuna, nahiz eta batzuetan ez ados egon batzuek eman dituzten pausoekin. Kartzela bizirik hiltzea da, isolatze eta bakar-tze modu krudela eta latza. Ni urtebete eta egun bat egon nintzen. Hilabete batzuetan barruan egon ginen eta gero hirurgarren gradura pasatu ginen, lotara joaten ginen kartzelara. Eta benetan etapa grisa izan zen. Intsumisoek sekulako bizitasuna, ametsak eta proiektuak genituen eta zalantzarik gabe guretzat egon zitekeen tokirik txarrena gertatu zen kartzela. Elkartasun handiko garaia zen, sekulako giroa zegoen, dozenatik gora intsumiso ginen kartzelan eta sekulako harremana genuen preso sozialetan eta euskal preso politikoekin. Hala ere, nahiz eta giroa bikaina izan, oso garai iluna izan zen».

KIKE MUR PRESOAREN HERIOTZA

Hirugarren gradura pasatu zirenean, bost intsumiso zeuden elkarrekin, bi ziegatan banatuta. «Kartzelan lo egiten nuen eta goizetan lanera joaten nintzen. Arratsaldetan, 'Fuego al Cielo de los Cuervos' diskoa grabatzen genuen apoek, eta, gauean, berriz, kartzelara buelta. Bost intsumiso geunden, Guillermo eta biok –biak taldeko kideak– eta beste hiru, tartean Kike Mur. Kike hil zen gauean gertatu zen guztiak txikitu egin ninduen. Gogorra izan zen lagun bat hiltzen ikustea, baina hori bezain gogorra izan zen nola tratatu gintuzten ikustea. Txikitatik badakizu nolakoa den sistema, nolakoa den Polizia. Txikitatik ikasten duzu bertsio polizialak ez sinisten. Baina gau hartakoa izugarria izan zen, tamalgarria».

1997ko irailaren lehen eguna zen. Bost preso zeuden hirugarren graduan, ateak irekita zizutuzten bi ziegatan banatuta.

«Guillermo eta ni ziega berean geunden, beste preso batekin. Eta Kike Mur, parekoan. Elkarrekin afaldu genuen denok eta Kike oso pozik zegoen, beti bezala. Oso gutxi geratzen zitzaion kondena betetzeko. Goizeko ordu biak pasatxo buila batzuk entzun genituen. Kike oso gaizki zegoen, artsenikoa hartu zuen. Beheko solairura jaitsi genuen koltxoi batean eta funtzionarioari behin eta berriz eskatu genion anbulantzia bati deitzeko. Ez zigun kasurik egin. Kartzelako medikuak ikusi behar zuela esaten zuen. Ni Kike erreanimatzen saiatu nintzen behin eta berriz, neukan ezagutza urriekin. Orduan ez nintzen soroslea eta ez nekien erreanimazio bat egiten, baina gerora erabaki nuen ikasi egin behar nuela. Ez neukan eskularrurik, ez maskararik, ez ezer... Funtzionarioari behin eta berriz esaten genion atea irekitzeko, ospitalera eramango genuela. Preso batzuek

*«Gogorra izan zen
Kike hiltzen ikustea,
baina hori bezain
gogorra izan
zen nola tratatu
gintuzten ikustea.
Txikitatik badakizu
nolakoa den
sistema, nolakoa
den Polizia. Baina
gau hartakoa
izugarria izan zen»*

*«Berezia izan zen
kontzertua. Asko
astindu ninduen,
espetxe hartan
etapa tristea bizi
izan nuelako. Baina
mendeku bat izan
zen, garaipen bat»*

autoa kartzela kanpoaldean zeukaten, egunero lanera joateko erabiltzen zutelako. Baina funtzionarioak ez zuen atea ireki nahi eta ez zuen ezer egiten. Medikuak azaldu behar zuela esaten zigun. Protokoloa. Pixkanaka funtzionario gehiago azaldu ziren. Gu lurrean, Kike erreanimatu nahian eta funtzionarioak paretaren kontra jarrita, guri begira eta ezer egin gabe. Azkenean medikua azaldu zen, denbora asko pasa eta gero. Gogoan dut esku batean zigarreta zuela, Ducados bat. Beste eskuarekin Kikereren eskua hartu eta pultsua hartu zion, makurtu ere egin gabe. 'Autopsiak esango du zer gertatu den', esan eta eskua askatu zion. Seko erori zen Kikereren eskua lurraren kontra. Sekulako inpresioa egin zidan. Halako batean anbulantzia bat iritsi zen, baina Kike ordurako hilik zegoen. Gogoan dut esku-ohe batean etzan zutela eta korrika zeramatela anbulantziara. Ni ere haie-

kin, esku-ohea presaka bultzatzen, desfibriladorearekin zeozer lortuko zuten itxaropenaz. Anbulantziara igotzera gindoa zela, bi funtzionario gerturatu ziren. Batek eskua eutsi zion Kikeri eta besteak tinta tanpoi bat zeraman. Berehala konturatu nintzen zer egin nahi zuten, hatz-markak hartu nahi zizkioten. Kartzelatik ateratzen ginen aldiro hartzen zizkiguten eta era horretan irudikatu nahi zuten Kike bizirik zegoela kartzelatik atera zenean. Lur jota geratu nintzen. Funtzionarioei begiratu eta gauza bakarra esan nien: 'ez daukazue bihotzik'. Funtzionarioak sutan jarri ziren eta eraso egin zidaten. Egundorretan zerbait hautsi zitzaidan barruan».

Kikereren lagunak eta familiak bide luzea abiatu zuten, alderdi batzuekin eta besteekin hitz eginenez, intsumiso gazteak jasotako tratu tamalgarria salatzen. Kasua artxibatu egin zuten.



Duela aste pare bat Kike Mur zentro sozial okupatuan El Corazon del Sapok emandako kontzertuaren aurretik omenaldi bat egin zioten Kikeri eta bere omenezko plaka bat inauguratu zuten. «Oso berezia izan zen kontzertua. Asko astindu ninduen, toki horretan nire bizitzako etapa oso tristea bizi izan nuelako. Baina, era berean, mendeku bat izan da. Lehen isiltasuna zegoen tokian orain musika, mugimendua eta borroka dagoela ikustea garaipen txiki bat da. Kontzertuaren aurretik oso hunkituta nengoen, hainbeste intumisoren gurasoekin akordatzan nintzen, kartzela horretan egondako kaka guztiarekin... Oso zoriontsu egin nau kontzertu horrek, benetan. Baina ez nuen nostalgiarekin bizi izan. Ondo dago lehen gertatu dena gogoratzea, baina batez ere aurrera begiratu behar da, eta borrokan segitu».

Kontzertu horretako aje gozoa gainean, egunero Lesakako igerilekuan egiten duen lanaldiaren aurretik, datozen asteetan apoekin eta Estricallarekin dituen kontzertuen agenda buruan... Hala ere, patxadaz eta irribarretsu topatu dugu. «Erabaki dut momentuaz gozatu nahi dudala. Oso une garrantzitsua da eta ez dut estututa egon nahi. Lo gutxi egiten dut, nekakuta nago, baina oso baikor hartzen dut etortzen zaidana. Oso txip ona hartu dut bira honetan eta horri eutsi nahi diot».

ERREFUXIATUEN ERREALITATEA

Azkenaldian asko tristatzen, distorsionatzen eta amorratzen duen errealitatea Europan baina noraezean dabilzan errefuxiatuena da. 2016ko irailean Grezian egon zen Zaporeak proiektuarekin boluntario lanean. Une honetan proiektu hori geldirik dago, finantziazio arazoak direla-eta. «Kios uhartean egon nintzen Zaporeak proiektuarekin. Harrituta geratu nintzen boluntario lanetan dabilzanekin; gazteak, helduak, ni bezala beren oporrak baliatzen dituzten langileak, ikasleak, erretiratuak... Lana gogorra zen, goizeko seietan martxan, 1.200



menu prestatu egunero, eguerdian kanpalekuetan janaria banatu, hango errealitate gordina ikusi... Asko kolpatu nauen esperientzia izan da. Hasiara batean sorosle modura joan nahi nuen, Itsas Salbamendu Humanarioa taldearekin, baina ezinezkoa izan zen nire jaieguna eta haien egutegia koordinatzea. Azkenean, beraz, Zaporeak taldearekin joan nintzen. Oso esperientzia gogorra izan da, oso mingarria, baina, era berean, asko bete nauena. Han nengoenean sentitzen nuen hori zela munduan nire tokia eta ez nuela

beste ezer behar, ez lanik, ez musikarik, ez ezer. Kasik han geratu nintzen. Azkenean bueltatu egin nintzen, baina espero dut aurten berriro joatea. Belgrade-ra joan nahi nuke, bertan milaka errefuxiatu daudelako ez aurrera ez atzera».

Injustiziaren kontrako borrokalaria da Fer eta horrek eraman zuen Greziara. «Batzuetan, baina, kontraesanak sortzen zaizkit. Nik badut dena zalantzan jartzeko joera eta justiziaren eta karitatearen arteko marrera batzuetan oso lausoa izaten da. Baina errefuxiatuek egune-

rokoan dituzten behar larriak ikusita, zalantzak alde batera uzten dituzu. Gaur jan egin behar dute. Kito».

Fernandok Lesakako igerilekuan egiten du lan sorosle bezala eta igeriketa ikastaroak ematen. Greziako bidaiatik bueltan, barrenak ondo astinduta, ez zuen asmatzen zein aurpegirekin begiratu sauna epelegia zegoela esanez erretxinduta hurbiltzen zitzaionari. «Gu hemen, denagatik kexatzen, eta ez dugu ideiarik Europan bertan ematen ari den errealitate krudelaren gainean. Egoera oso gogorra da

eta batzuetan nahiago dugu ez begiratzea, min egiten digulako. Errefuxiatuena arazo politikoa da eta irtenbide politikoa behar du, hori garbi daukat. Baina denon ardura da irtenbide politikoa hori bultzatzea, behartzea».

Berrargitaratutako diskotik eta gaur abiatuko den bira solidario txikitik aterako duten diru guztia Zaragozako errefuxiatuen babeserako taldearentzat izango da, hain justu. «Aragoiko taldeak Zaragoza eta ingurura iristen diren errefuxiatuak jaso, babestu eta lagundu egiten ditu. Oso pozik gaude, diru hori autoenpleguko proiektuetara bideratuko dutelako. Garrantzitsua da pertsona horiek bizimodua aurrera ateratzeko modua izatea eta karitatetik bizi beharra ez izatea».

Fernandorentzat garrantzitsua da pertsonen aurrera egiteko tresnak ematea. «Grezian egon naizenean, bertako errefuxiatuekin hizketan, kontraesan handiak sortu zaizkit. Haiek gure munduan sartu nahi dute, saldu dieten irudiak itsutzen dituelako, auskalo zer espero dutelako. Haiei laguntzera joaten garenok, berriz, gure mundua eta gure sistema etengabe zalantzan jartzen dugunok gara, egunero sistemaren kontra borrokan gabiltzanok. Eta, hala ere, bagoaz errefuxiatuei sinisten ez dugun mundu batean sartzen laguntzera. Horri buruz asko hitz egin dut errefuxiatuekin Kiosen».

EUSKARA, HERRIAREN BIZKARREZURRA

Fernando Apoak euskaraz hitz egiten du, txukun gainera. Elkarriketaren parte batzuetan gaztelaraz mintzatu da eta horrek mina egiten diola asko igartzen zaio. «Beti oso garbi izan dut euskaraz hitz egin behar dudala. Euskal Herriaren bizkarrezurra euskara da, zalantzarik gabe. Horregatik, Euskal Herriaren parte banaiz –eta hala sentitzen naiz– euskaraz hitz egin behar dut. Lanean eta egunerokoan euskara erabiltzen dut. Batzuetan, baina, elkarriketa sakon honetan bezala, blokeatu egiten naiz. Baina ezin da ulertu Euskal Herria euskararik gabe».

Amancio Ortega munduko aberatsena dela diote. Ez nau harritzen, ia ezinezkoa baita inor topatzerik inguruan Inditex (Zara taldea) ekoizle erraldoiaren arroparik ez duenik.

Amanciok 14,7 milioi euro dohaintzan emango omen dizkio Osakidetza minbiziaren aurkako ikerketetarako. Osakidetza diru hori hartu beharko lioke ala ez? Garbia al da diru hori ala inperioaren zutabe ustelen kolore iluna zuritzeko ordaina?

Minbiziak guztioi bihotza hunkitu egiten digula badaki Amanciok eta beste askok bezala dohaintza izengabea egin izan balu ez nukeen idatziko zutabe hau, aitzitik marketin erraldoia baliatuz sare pozoitua jaurti dio Osakidetza.

Ugariak dira galiziarraren mozkinen jatorri iluna aireratzen duten ikerketak. 2015eko urrian, Herbehereetako gobernuz kanpoko erakunde batek “Ehun akastunak” ikerketan Inditex salatu zuen milaka haur eta nerabe andrazkoren lan eta giza eskubideak esklabotza mailaraino etengabe bortxatzeagatik India eta Bangladesheko haren ardura peko enpresa azpikontratuetan. 2015eko apirilean, Ehsan Ullah Khan haurren esklabotzaaren aurkako pakistandar liderrak eta Marcha Globaleko buruak mihian lihorik gabe zioen Zarak Asian duen produkzioaren %100 haurren esplotazioan oinarritzen dela. Galiziako ehungintza deslokalizazioa Asiaraino eramane zuen.

Amanciok, baina, bere holdingaren hasapenetatik ekin zion ehunka emakume

jostun bidegabeki esplotatzeari azpikontratutako “tailerretan”. Egun, dirua agintari eta beldurra ezarrita, menpean du Galizia. “Isiltasunaren Legean” oinarritutako inperioa da nagusi.

Munduko ehungintza merkatuaren jabe ahalguztidun bilakatuta, katuaren atzaparretan sagua nola nahi gaitu erabili, eta dohaintzarekin inbertsiorik merkeena egitera doa: zapalkuntzatik lortu milioi merkeen truke preziorik ez duen izen ona eta ohorea eskuratu.

Baina bada dirurik oparituta ere onartu ezin denik, pozoitutako dirua. Rodrigo Ratoarena adibidez, edo narkotrafikotik edo armagintzatik datorrena. Edo haur eta nerabeen esklabotzaaren izerdia darimana... Nago Amancioen dirua onartzea zuritzea baino zerbait gehiago dela. •

Historiaren letra xehea irakurtzen

**Maiden lantzi
Goienetxe**

Bada historia handi bat, eskoletan irakasten digutena, azterketak pasatzeko ikasi behar duguna, zifraz eta datuz betea sarri, biharamunerako erdi atzendua duguna. Bada historia handi bat, egunero hedabide eta sare sozialetan zabaltzen dena, tantaka-tantaka zurrupatzen joaten garena, gehienetan ohartu gabe, zalantzan jarri gabe.

Baina bada letra xehean (eta ez horregatik txikian) irakurtzen den historia ere, edo historiak erran beharko genuke, pluralean. Hauetan bizipenek hartzen dute garrantzia. Herri oso bati eta gehiagori eragin dion gertakari batek (Gernikako bonbardaketa etortzen zait burura, adibi-

dez) pertsona zehatz batengan ze ondorio izan dituen kontatzen dute. 14 urterekin babeslekuan gordeta galtza luze estreinatu berriak zaintzen zituen mutikoaren kontakizuna izan daiteke, edo 80 urte geroago tragedia haren markak soinean dituen bilobarena, ahantzi ez baina gehiegi pisatzen duen motxila utzi nahian ari denarena. Letra xehea ez da ahazten.

Historia hauek argazkitan ere irakur ditzaiegu. Beran, Rosa eta Totonon Errandonea anai-arrebak ordaindu ezin den lana egiten ari dira urtetan herriko argazki eta kontu zaharrak bilduz. Artxiboa zabaltzen segitzen dute, gaur egungo istorioekin. Gustatzen zaielako egiten dute, eta mate-

rial guzia konpartitzen dute, Beragureherria.com atarian zintzilikatuz edo norbaiti bere arbasoen argazki bat oparituz. «Garai batean, argazkiak batez ere aberatsen kontuak ziren eta argazki batek oroitzapen aunitz pizten ditu», adierazi dio Rosak “Ttipittapa” aldizkariari.

Etxean bertan, kutxa ezkuturen batean galduta ditugun altxorren balioaz ohartarazten gaituzte Rosak eta Totonok. Agian gaur egun klik egitea hain erraza delako, edo dena eskura dugulako, ez ditugu hain ongi zaintzen altxorrak. Egia erran, nitaz ari naiz, armairu handi baten garbiketa egin berri baitut. Baina kasu honetan singularra plurala dela uste dut. •



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Hogei urtez Euskal Herriko hazien ondarea berreskuratu eta zaintzen

Euskal Herriko Hazien Sareak gaur bertan ospatzen du bere hogeigarren urteurrena. Bi hamarkadatan zehar, gure baserritarrek aukeratutako ortuari eta zerealen haziak zein fruta arbola barietate zaharrak berreskuratu, gorde eta zabaltzeko lanetan jardun da Euskal Herrien Hazien Sarea. Horretarako, prospekzio etnobotanikoak, hazien bankuaren kudeaketa, hazien zaindarien sarea, hezkuntza proiektuak eta baita tokiko barietateen erregistro parte hartzaileak sustatzen ditu. Gaur, egun osoko ospakizunaren bitartez, egindako lan eskerga bistaratu, tokiko barietateen garrantzia azalerratu eta beste hogei urtez (gutxienez) jarduteko asmoa jendarteratu nahi du.

GALTZEN ARI DEN ALT XOR BALIOTSUA

Nikolai Vavilov botanikari errusiarrak mundu osoko baserritarren eskutik elikadura espezie nagusien haziak batu, sailkatu eta gorde zituen XX. mendearen hasieran, sekula izan den hazi banku handiena sortuz. Gizon honen bizitzak merezi du artikululu luze bat, baina hori hurrengo baterako utziko dugu. Kontua da, Vavilovek elikadura espezieen sorleku nagusiei buruzko sailkapen bat egin zuela, eta Euskal Herria ez dago sorleku horien barnean.

Espezieen sorleku ez izanagatik, euskaldunok badugu kultura aberatsa hazien inguruan. Gariarekin izan dugun harreman estua, adibidez, Aguraingo Larrea auzoan duela mende askotatik ospatzen den "Bar-te" ogiaren jaian edota Martin Txikiren kondairan islatuta dago. Artoak berak, oso denbora gutxian, sustrai sakonak erroto zituen gurean. Finean, elikadura espezieak ez dira hemen sortu, baina gure baserritarrek erabili eta garatu dituzten barietateak eta espezieak ehunka izan dira. Euskal Herriko Hazien Sareak hogei urte hauetan zehar egindako prospekzioetan jaso dituen ia 200 barietateak dira adibide garbiena. Baina galtzen ari den ondarea da. Antzinarako garien katalogoek, Madozen entziklopediak, baserritar nagusien testigantzek zein argazki zaharrek hala frogatzen dute.

Hazien gaiari muzin egitea akats itzela izango litzateke. Hazien inguruko borroka ilun eta isil honetan gauza asko dauzkagu jokoan. Izan ere, Indian, Afrikan edo Amerikan gertatzen den eran, gurean ere hazien gatazka borborrean dago. Bere eraginak agerikoak dira: bioaniztasunaren galera, merkatuak hazi enpresa gutxi batzuen kontrolpean egotea eta nekazaritzarako lehengaien hornitzaileekiko menpekotasuna.

MENPEKOTASUNETIK IHES EGITEKO HAZIAK

Barietate berriek lehengoan tokia hartzea normaltasunez ikus dezake norbaitek, garai berrien seinale. Oker dago. Barietate berriak sortu eta merkaturatu ahal izateko, erabat homogeneoak izan behar dira. Gainera, barietate asko arbaso komun baten hibridoak dira, edo beraien artean ia ikusezinak diren aldaketak dauzkate. Barietate asko sortzen ari dira, baina aniztasun genetiko txikikoak dira. Oro har, hazi berriak garatzeko orduan, gutxi dira nekazaritza ekologikora ongi egokitzeke pentsatuak daudenak (alegia, ez dezatela menpekotasunik izan ongarri, pestizida eta plagizida kimikoekiko). Ondorioz, gertatzen dena da askotan barietate zaharrek uza errentagarriagoak bermatzen dituztela. Hor dugu, esaterako, Sabandoko (Ara) barietateak, Frantzia eta Italiako nekazari ekologiko askok ereiten dutena.

Hazien gatatzak mintzatzean isunak, salaketak edota manifestazioak eragin dituzten gertaerak ari gara. Nekazariak belaunaldiz belaunaldi mantendu duten haziak gordetzeko ohiturari esker dauzkagu gaur egungo barietateak, baina erregistratutako barietateez ari garelarik roalytyen ordainketa sartzen da tartean. Horiek direla eta nekazariak hainbat salaketari aurre egin behar izaten diete.

Transgenikoek beren sorreratik eragin dute zalaparta. Ipar Euskal Herrian, nekazariak moztu zuten baimenik gabe ereindako arto transgenikoa; Hego Euskal Herrian ere mobilizazioak antolatuta izan dira transgenikoen aurka. Herriarrok ez dakigu, baina Monsanto multinazionala



EUSKAL HERRIKO HAZIEN SAREA

era ikusezinean bihurtu da Hego Euskal Herrian mintegien hazi hornitzaile nagusi. Multinazionalak baratzeekin lotutako merkatuaren %70 pilatzen dute (hiru multinazionalak osatutako konglomeratu handi batek mundu osoko hazi merkatuaren %61 eta pestizida eta plagiziden merkatuaren %65 kontrolatzen ditu).

Hazien kontrolak duen garrantziaren beste adibide bat "biopirateria" kontzeptuak ematen digu. Guk geuk pairatu dugun berau, enpresa handiek Gernikako piperrari edo Zallako tipula gorriari aldaketa txiki batzuk eginda hazi "berri"

horiek merkaturatzeko eskubide eskusiboak berenganatu baitituzte. Zilegi al da?

Panorama triste hori gorabehera, bada, go isilpean bioaniztasunaren alde lan egiten duen gizarte sektore bat, txikia baina anitza; nekazariak, baserritarak, ingurumen arloko hezitzaileak, teknikariak, sukaldariak... Horiekin batera eta horien artean dago Euskal Herriko Hazien Sarea, hogei urte bete dituen elkar-tea.

Euskal Herriko Hazien Sarea



Beniteztar anaia gaztea, Mikel, Tabakalerako Terzi kafetegian, lanegun mugitu baten amaieran.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

infraganti TERZI KAFEA

Presak eta industriaren interesak tarteko, murriztu egin da kafea prestatzeko denbora eta erritua. «Makinagoa» da ostalaritza. Marearen kontra, 40 urteko jakintza baliatuz eta italiar artisauengandik ikasiz, Benitez azpeitiar anai-arrebek bertzelako kafe bat eskaintzeko lan egiten dute. Kariñotik eta zaintzatik dator kafe hau, eta produktutik harago doa.

Mikel, Jose, Eugenio eta Kontxi Benitez anai-arreba azpeitiarrek daramate Donostiako Terzi Kafea. Ama ere eki-poaren parte da, nahiz eta bere lana itzalean gelditu. Eta Patricia, barista ofizioa ikasten ari dena. Gurean kalitatezko kafean espezializatutako profesionale-

na ez da ogibide ezaguna, baina Italian hagitz figura aitortua eta errespetatua da.

Egun fresko batean bisitatu du GAUR8k Tabakalerako Tabaguneko kafetegia. Aste Santuaren ondorengo egun lasaiak eta gero, hoztu eta jende tropela etorri zaie. Jose, Mikel eta Patricia gelditu gabe ari dira lanean barraren giblean. Mikelek kontatu digu goizeko zortzietarako estres puntuarekin hurbildu

zaiela bezeroren bat, lehenengo izan nahian. «Ez gara konturatzten jende guztiak duela bere presa eta garrantzia, eta batekin eta bestearekin, arratsaldeko zazpiak iristen dira eta lehertuta gaude. Horretatik babestu behar dugu», adierazi du jende olatua baretu eta gurekin kafe bat konpartitzeko eseriz.

Dioenez, jendartearen presioagatik eta industriaren intereseengatik murriztu egin da kafea prestatzeko denbora eta erritua. Horren adibide dira kapsulak. Jendeak erraten du ez duela denborarik kafetera italiar batean kafea prestatzeko. Mikeli gehien gustatzen zaiona, hain zuzen, moka hori prestatzea da.

«Kafetegietan ere hori gertatu da, ez diogu denbora ematen prestaketari. Ez da makala izatea; espresso bat prestatzeko ez dituzu segundo asko behar. Baina jendeak presa dauka produktua eskuetan eduki arte. Orduan jada ez dauka presarik. Hamabost minutu ditugu eta zerbitzariari edo baristari ez diogu minutu bat errespetatzen. Pre-

sio horregatik dena mekanizatu dugu. Botoiari eman eta kitto. Zer galdu da? Kalitatea».

Benitez anaia gaztearen iritzi, ez gara ohartzen edaria prestatzen digun pertsona sukaldari bat bezalakoa dela. Eragin handia du umoreak, kariñoak, alde humanoak. «Tabernaria izan ala dendaria, tratu hori, diru truke produktu bat ematea, adibidez kafea, ez da bakarrik kika barruan dagoen edaria; dena da. Zure jarrera».

Erantsi duenez, ez gara konturatzten bizigarri edo droga batekin jolasten ari garela (justu bizigarrien inguruko erakusketa bat ikus daiteke Tabakaleran). Garai batean botiketan saltzen zen kafea. «Kafeina gehiegi atara dezakegu, bihotzerrea eragin, takikardia bat... Zaindu egin behar dugu hori».

Are garrantzi handiagoa du egunero hartzen den gauza bat delako, aunitzek behin baino gehiagotan. Kafea eta zigarroa da batzuentzat, maite ez duten lanetik ateratzea bertzeentzat. Agian ez dute kafea hartzen, infusioa baizik. Produktutik harago doa.

Denbora bat partekatzeo gonbidapena ere bada. Solasarako lekua. «Harkaitz Canok kontatzen du lagun bat duela urtean behin ikusten duena. Kafea hartzeko gelditzen dira beti. Pentsatzen jarri eta ohartzen da urtean kafe bat hartuko dutela, hogeitertan hogeitert kafe. Konturatzten da zeinen inportantea den une hori, kafearen unea».

LERROAN JARRI ETA TXUTEA HARTZEA

Benitezen ustez, kafetegira joateko bi jarrera ditugu: gozatzer joan gaitezke, edo kafeina txutea bilatzera, «Charles Chaplinen pelikuletan denak lerroan jarri eta partxeak jartzen dizkietenean bezala. Berdin zaigu ona ala txarra dagoen, kariñoa jartzen diozun, irribarre egiten duzun... Makina bat zara».

Beti erraten du kafea dena zurupatzten duen fruitu bat dela. Zakuetan, biltokietan, hezetasuna hartzen du. Zaporeak, usainak... Sentsazioak eta sentimenduak ere bai. «Landaretik tratu txarra izan badu, tratu txarrak

badaude ibilbide osoan, azkenean katiluan kafe horrek gaizki egingo dizu. Aldiz, badira kafeak kariñotik eta zaintzatik datozenak, ongi egiten saiatzetik».

Gaur hamaika sentsazio izan dituzte bezero batekin eta bertzearekin. Onak, ez hain onak, desatseginak... Onekin geldituko dira. Bezeroak jakin dezala bihar hor egonen direla, kafe on bat ateratzeko gogoz.


Helburua ofizio honetan segitzea da, inguru honetan bizirautea. Aurten 40 urte betetzen ditu Azpeitian duten Izaro tabernak. Mikelek 42 ditu. Auzo bateko taberna-kafetegia da Izaro. «Ostalari eta saltzaile gisa dugun esperientziatik pentsatu genuen jakintza hori erabili behar genuela beste produktu batzuk saltzeko, beste jende batzuentzat: kooperatibentzat, nekazari txikientzat... Guatemala-lako kafe bat saltzeko lan handia egin behar da. Prezios eta kalitatez oso ondo dagoen produktu bat ematen dizute, eta prezio berean marka ezagun batzuk txurroak bezala ateratzen dira».

Nekazaritzarekin lotutako familia bat dira eta Donostiara ekartzen dituzte Etiopia, Ruanda, Kongo, Kenya, Tanzania eta Nikaraguako zaporeak.

ESPRESOA, ORAINDIK JAIOBERRIA

Terzi etxeko Manuel eta Helenarekin ikasi zuten, Bolonian. «Europa erdialdean kafe espresoren tradizioa dago. 40 urteotan kafe honekin egin dugu lan guk ere. Manuel eta Helenaren bidea gustatu zitzaigun: *slow food*-a, nekazari eta kooperatibekin lan egitea, merkataritza zuzena eta bidezkoa... Aitzindariak dira horretan. Kontua ez da zigilu bat saltzea, jendea lantzen ari den produktua baizik, eta produktuak berak irabaz dezala, ez dadila izan elkartasunez egiten den zerbait. Sekulako produktua egiten dute, dasta ezazu, oso ona dagoelako».

Azpeitiar familia honen ustez, txigorketan hoberenak dira Terzi etxeokak, eta eurekin ikasten eta lanean segitu nahi dute. «Italiako kafe espreso tradizionalaz hitz egiten dugunean 100 urteko historiaz ari gara. Kafe



Goian nahasketetako bi. Behean, kafea pisuan. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Kafea eta zigarroa da batzuentzat, lanetik ateratzea bertzeentzat. Denbora partekatze gonbidapena. «Ez gara konturatzen ze inportantea den une hori, kafearen unea»

«Terzi markaren banatzaile gara. Konpainia bat dela pentsa dezake norbaitek, baina kalitatezko kafearekin bizia ateratzen saiatzen den jendea da eta horrek ez du leku handirik merkatuan»

hau ezagun egin zuen kafetera 1930eko hamarkadako da. 60ko hamarkadako hau iritsi zen gero –azaldu digu barra gibe-leko kafe-makina ederra seinalatuz–. Bonba elektrikoa jarri zioten lehena izan zen. Jarri zuenaren semearekin lan egiteko zortea izan nuen. Kafe espreso tradizional italiarraren adarra oso txikia da, eta jende honek aitzindariengandik ikasi du. Hemen, bazirudien kafe espreso jada asmatuta zegoela, dena egin zegoela, eta han, jende honekin ikusi nuen oraindik jaioberria dela. Txigorketa asko esperimentalak dira».

Egunez egun, kikaraz kikara ari dira anai-arrebak lanean, hagitx gustura. «Kafe-errotak bakoitzak desberdina da. Gaur Guatemala-lakoarekin borrokan ibili naiz egun osoan. Kafe bakoitzak bere kurba du. Bizirik bezala daude».

Terzi Kafea aitzinera ateratzeko Izaro kafetegia alokatu zuten (haiei ere erakutsi diete eta Terzi markarekin ari dira lanean). Azpeititik Donostiara etorri ziren eta Ibaetan egon ziren Tabakaleran hasi arte.

TOPALEKUAK ZAINDU

«Barraren atzean dena zenbat eta profesionalagoa izan, hobe bezeroarentzat –defendatu du–. Hornitzaileei produktu hobeak eskatuko dizkie eta hauek ekoizlearen lana ona izateaz arduratuko dira. Kate horretan ezin da nekazaria esklabo gisa aritu. Kafeak logikoa izan behar du eta alde humanoari garrantzia eman behar zaio. Hala lortzen da produkturik onena eskaintzea preziorik onenean» (1,10 euro balio du kafe espresoak).

Zerbitzariarekiko errespetua eta profesionaltasuna galtzen ari direla ikusten du Benitezek. «Jendartearen era batera dator, marreak bezala, eta kontra egitea ez da erraza, aurretik eraman zaitzake edo osasuna ken diezazuke. Denok izan nahi dugu mila izarreko sukaldari, baina inork ez du auzoko jendearekin egon nahi. Ez zaie egunerokotasunari eta giza harremanei baliorik ematen. Ostalaritza makinagoa da», hausnartu du.

Kafetegiak, jendea biltzen den tokiak, zaindu behar direla aldarrikatu du. «Gorde diezadakezu hau?» galde dezakezun leku bakarrak dira». Ahalegin horretan segituko dute eurek, ez ohikoetan ez berezietan sartzen ez den kafe hori eskainiz. Egunero ikasle sentituz, bai produktuan eta bai negozioan. «Kontua ez da mendekoa izatea. Errebelatu ere egin behar da, inperfektua izan», agertu du. Hainbertze, Donostiako kafetegi okerrera izatera iritsi zirela, TripAdvisor-en arabera. •

Maidar Iantzi Goienetxe



Ander Izagirre - @anderiza
Kazetaria

Alemaniarren azenarioak Biriaturun

Zaldiak asko maite nituen. Zaldi eder hura ikusi nuen, laztantzera joan nintzen. Eta bat-batean soldadu nazi bat agertu zen, oihu egin zidan, a ze ikara! Korrika atera nintzen galsoro batean barrena eta soldadua atzetik etorri zitzaidan, zaldi gainean». Orain Marie Dominiquek barre egiten du. Eri-zain erretiratua da, ile zuri motza du, betaurreko gorri biziak, etengabeko barre alaia. «Orduan bost edo sei urte nituen. Pentsa nolako jazarpena izango zen: txantxetakoa! Baina halaxe gogoratzen dut: ni korrika, nazia atzetik, zaldia nire garondoan arnasestuka, etxera sartu nintzen arte. Negar batean joan nintzen amarengana».

Naziak 1940ko ekainaren 27an iritsi ziren Bidasoara. Frantzia bitan zatitu berri zuten: zona okupatua eta zona libre –hobeto esanda, alemaniarren txo-txongiloa zen Petain mariskalak gobernatutako zona–. Hendaiatik Donibane Garaziraino, Pirinioetako muga nazien kontrolpean gelditu zen. Alemaniarrek Biriatura iritsi ziren, soldaduek eskola okupatu zuten...

«Garai hartan, aduanazainaren etxean ematen zizkiguten eskolak».

Eta ofizialek Atxenia hotelean jarri zuten kuartel nagusia. Hotela gobernatzen zuten Bonnet ahizpak Comete sare klandestinoaren laguntzaileak ere baziren: zenbaitetan, alemaniarrek jangelan afaltzen zuten bitartean, hoteleko ganbaran hegazkinlari pare bat zegoen ezkutatuta –ingelesak, estatubatuarrek, belgikarrak, txekiarrek...–. Ilargirik gabeko gau baten zain egoten ziren, Bidasoa zeharkatzeko.

Biriaturun bertan, basoko bidean barrena, bi hilarri ikus daitezke, Antoine d'Ursel -Comete sarearen burua Belgikan- eta James F. Burch hegazkinlari estatubatuarren omenez. 1943ko abenduaren 23an, ihesean ari zirela, Bidasoan itota hil ziren. Biharamunean naziek gorpuak aurkitu eta Biriaturuko elizaren aurrean jarri zituzten ikusgai, mehatxu moduan. Baina herritarrek gorpuak lorez estali zituztenean, naziek desagerrarazi egin zituzten.

«Alemaniarrek baserrira etortzen ziren eta azenarioak eramaten zituzten –dio Marie Dominiquek–. Baita patak ere, eta azak, oiloak, nahi zuten guztia. Baina gehien gogoratzen dudana azenarioak dira, soldadu baten eskuak gogoratzen ditut, azenario atera berrien lurrarekin zikindutako eskuak. Baserriko behi bat errapeko minez zegoen, ukuiluan hiltzen. Beste soldadu bat ukuilutik etxera sartu zen, eta esan zigun: 'La vache, kaputt'».

Marie Dominiquek algarak egiten ditu. «La vache, kaputt!»

Eta Guiguite bere lagunak ondoren: «Poloniar batzuk ere bazeuden. Haietako batek txokolate zuri puska bat eman zidan. Nola gogoratzen dudana txokolate zuri hura!».

«Guk errusiarrek deitzen genien –dio Marie Dominiquek–. Poloniarrek izango ziren agian, baina guk hala esaten genien, errusiarrek. Aurpegiera asiarrak zeukaten... Guretzat, exotikoak».

1942ko udan, naziak Atlantikoko Harresia eraikitzen hasi ziren: gotorlekuak, bunkerrak eta artilleria postuak itsasoari begira, Norvegian hasi eta Hendaiaraino, aliatuen balizko inbasio bat oztopatzeko. Lapurdiko kostan, Bi-

dasoan eta Pirinioetako lehenengo mui-noetan, bertoko langile behartuak eta gatibu poloniarrek erabili zituzten erakuntza horiek egiteko. Haietako bat izango zen Guiguiteri txokolate zuria eman ziona.

Marie Dominiquek gogoan du alemaniarrek presoak zelaietara eramaten zituztela, lubakiak zulatzera eta bunkerrak eraikitza. Noizean behin, soldaduek maniobrak egiten zituzten.

«Bota handi haiekin ateratzen ziren, pausoak denok batera egiten, brom!, brom!, brom!, eta gero aginduak oihuka ematen zituzten, batetik bestera korrika, tiroak jotzen... Uf, ikaragarria zen. Hemendik alde egin zutenean, lasaitua hartu genuen».

Naziak 1944ko abuztuan irten ziren Euskal Herritik, Bordeleko frontean aliatuen erasoak gelditzeko asmoz.

«Zutabe luze batean abiatu ziren, ibilgailuekin, armekin, Urruña aldera, kostara, iparraldera. Joan zirenean, bakea eman zuten!».

Beste esku batzuk datozkio orain gora: azenario atera berrien lurra aitarren eskuak zikindu zituen berriz ere. •


www.anderiza.com



Biriaturuko basoan dauden bi hilarriak. IZAGIRRE

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSU CHUECA

FAXISTAK MONTEJURRAN TIROKA, KARLISTEN OSPAKIZUNEAN

1976ko maiatzaren 9aren bezperan, hainbat ultraeskuindar zebiltzan Lizarran, besteak beste Stefano della Chiaie eta Augusto Cauchi italiarrak, Emilio Berra eta Rodolfo Almidon argentinarrak eta Jean Pierre Cherid frantsesa. Hurrengo egunean, karlistek beren ohiko ospakizuna egin zuten Montejurran. Ultraeskuindarrek tiro egin eta zenbait lagun zauritu zituzten, eta, haietako bi, Ricardo Garcia Pellejero eta Aniano Jimenez Santos, hil egin zituzten. Argazkia Josu Chuecak egin zuen, ezustean, utzi zioten kamera batekin. Argazkiak egiten ari zela, Berra ultraeskuindarrak bere armarekin apuntatu zuen, baina Chuecak kamera jaistean, Berrak gorde egin zuen arma. Argazkian Jose Luis Marin militar ohia ageri da pistola eskuan, eta, atzean, ezkerretara, Augusto Cauchi, aurpegia estaltzen.

7^h haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGAI



IRAN

Ekialde Hurbileko portalea

Aintzinateko Persia modan jartzen ari da bidaiarien artean. Segurua eta merkea, azkar ulertzen da zergaitik ari den Ekialde Hurbileko harribitxi turistiko bihurtzen.

Eta gainera: Amsterdametik Kantauriraino belaontzian • Boise, AEBetako euskal hiriburua • Belabarze, ura eta mendien artean....

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^h haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

